

## Lemoako Gaztetxeak bere hamaseigarren urteurrena ospatuko dau

12. orrialdea

## Larregi taldeak *Pantomima* diskoa kaleratu dau

Lemoako taldeak Bilbon aurkeztu eban diskoa. Bederatzi kantak osotuten dabe. Melodiai garrantzia handia emon deutsee eta letrak jentartearen dagoan itxurakeriaren gainean egiten dabe berba. Urri bigarrenaren 23an Karabie Gaztetxean joko dabez disko barriko kantuak. 12. orrialdea



## Tubik Euskadiko Lasto Jasotze Txapelketea irabazi dau

10. orrialdea

# begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

# 238

2015eko urri bigarrenaren 15a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Kordel fabrikako memoria dakarre Saravia eta Langek



Antonia Arana, kordeleriako langilea.

**M**auro Saravia eta Jürgen Langek Lemoako Cordeleria Mecanizada enpresako beharginen bizimodua kontetan dauan erreportajea egin dabe BEGITUrako. 1920tik 1980ko hamarkadara arte arratiar askok egin eben behar han. Egileak fabrika horretan ibilitako andrakaz egin dabe berba eta orduko lan giroa eta lan baldintzen barri emoten dabe bertan.

Kordel lantegiko hiru solairuetan gizonak eta andrak egiten eben behar, guztira hirurogei persona baino gehiagok. Artikulu honen bidez, antxinako behargin kuadrila tipiko baten sartuko gara: Arratiako lau andra baserriarren kuadrilan. Hareetako batek kontetan dauz bere memoriak; hau da, bertan bizi izandako momentu txar eta onak.

Egileak kordel produkzioaren nondik norakoen barri be emoten dabe artikulu honetan. 8. eta 9. orrialdeak

## Aitzol Atutxa txapeldun



Aitzol Atutxa podiumeko gorenengo kajoian.


Argazkia: Iciar Ruiz.

**A**itzol Atutxa dimoztarrak irabazi dau Euskadiko Azkora Txapelketea. Bere atzetik gipuzkoar bik, Irazu eta

Olasagastik osotu eben podiuma. Hirugarren enborretik aurrera aurea hartu eban Atutxak eta errez irabazi eban. 11. orrialdea

### ARRATIA

## Burdinari lotutako ondarea ezetuteko egunak



Ondarearen Europako Jardunaldiak burdinari lotutako ondarea izango dabe ardatz. Areatzan Arragoeta eta Abendañotarren burdinolara bisita gidatuak egingo dira; Zeanurin, burdinola izan zan Olabari errotara eta Barazarko zentral hidroelektrikora. Ubidetik Zeanurira doan galtzadatik be burdina garraiatu zan. 6. orrialdea

### AREATZA

## Euskal Jaia urri bigarrenaren 24an

Areatzako VIII. Euskal Jaiak antxinako edariak izango ditu gaitzat. Azokan leku berezia izango dabe baserri eta etxeetan egiten ziran likore, ardao, txakolin eta sagardoak eta Orozkoko garrafea, Otxandioko limonadea, Urduñako txakolina, Etxeandia garagardoa, eta Lantziegoko ardaoa dastatzeko aukerea egongo da bertan.

Xake partida erraldoia, kantu jirea, herri bazkaria eta bazkalosteko erromeria dira euskal giroa ipiniko daben beste ekitaldi batzuk. 5. orrialdea

### ARRATIA

## Mankomunidadea aurrekontuetan generoa aztertzen dabil

Mankomunidadean eta udaletan, jarduera guztietan genero ikuspegia landuten dabiz, baita aurrekontuetan be, aurrekontuok lehentasunak gauzatzeko tresnarik garrantzitsuenak diralako. Gainera, Mankomunidadeko Bardintasun Zerbitzutik Beldur Barik Lehiaketarako gidoi tailerrak antolatu ditue, eta heziketea landuteko Bardintasunerako Gunean parte hartu eta autobusa ekarriko dabe Arratiara. 7. orrialdea

**U2T UBITE**  
ERA GUZTIETAKO  
MATERIALEK ERRIKUNTZARAKO  
ESTELEHEMETIK BERRIKURR  
07:45-12:45  
14:00-18:30  
ZEPATUETAN  
08:30-12:30

Tel.: 94 631 60 65 - 615 75 87 92  
e-mail: ubltemat@ubltes.com  
Igorreko Industrialdea, Pab. 11F - 1A  
48140 IGORRE (Bizkaia)

**TXIMINIA GARBIKETAK**  
EGURRA · PELLET · GASOIL  
BEHEKO SUAK · TXAPAK · BEROGAILUAK  
BIDEOKAMARAREKIN AZTERKETAK  
GARBIA ETA TEILATURA IGO BARIK!

**GOIKOGARBI**  
Dima-Bizkaia

696 27 42 00  
WWW.GOIKOGARBI.COM  
goikogarbi@goikogarbi.com

## ARRATIA ZURI-BALTZEAN

### ALBOKARI TRADIZIONALAK ARRATIAN

Harro egotekoa da, baina ez nago seguru beste kontu askotan erakusten dogun harrotasuna eta jakintza badaukaguzan gure albokari tradizionalakaz.

Han-hor-hemen ikertu, liburuak arakatu, webguneak bisitatu, eta laster konturatzen da bat gure harana izan dala aerofono berezi honen epizentroa, Zeanuriko Jose Iturbek 1897ko alboka lehiaketea irabazi ebanetik Villaron.

Hasi Ambrosio Gorostiaga "Anbros" zanagaz (1867-1926), igorretar albokari nagusietako batez eta amaitu Txilibrin edo Eujenio Etxebarriagaz, hari guztiak pasetan dira Galdakaotik hasi eta Zeanurirako bide laburrean. Ambrosio Gorostiaga, izan be, XIX eta XX.

mende bien erdiko albokari nagusia izan zan eta eragin handia izan eban besteengan.

Trebtsch doktorea izan zan Arratiako musika tradizionalaren testigu. Berak grabau ebazan, besteak beste, aitatutako Anbros eta Josefa Ealo pandero jolea, "Artolak deuko" zein "Asikonaz asitzera" kantak interpretetan.

Migel Larrinaga "Txuskoa" (1881-1921) dimoztarra eta Graziano Lekue "Txisperue" (1882-1945) zeberioztarra izan ziran beste bi handi. Euren bidetari segika etorri ziran gero Alejo Gurtubai "Barberue" (Galdakao), Alejo Etxezarraga (Dima), Jose Mari Bilbao (Artea), Inazio Uribarri "Andaluze" (Dima/Zaratamo), Manu

Barandika (Bedia), Bernardino Zautua (Igorre), Juan Kruz Valle (Galdakao), Jose Amundarain "Muñegi" (1895-1969) Zeanuriko pastorea, Ildefonso "Pontxo" Orue (1902-1980) lemoaztarra, Tiburtzio Elezkano (1906-1958) igorretarra, Benito Iragorri (1906-1973) Lemoakoa... eta Silbestre Elezkano "Txilibrin" (1912-2003) zein Leon Bilbao handia (1916-1990), danak, gureak dira, gure historiaren parte. Azken albokari eta albokagile honen argakia dakargu gaur orrialdeotara, danen ordezkari. Maurizia Aldaiturriaga handi egin eban Leonek, Mauriazak handi egin eban Leon. Ora-indino etxe portalean gogoratzen dot, alkandora paparretik zabalik, Arratia ibaiaren ertzean, urak bere musikearen testigu.

**Igor Estankona**



Leon Bilbao.

### TELEFONO INTERESGARRIAK

#### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

#### Guardiako Farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**

#### Urri bigarrenaren 12tik 18ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g

Tel.: 94 631 39 50

#### 22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

#### Urri bigarrenaren 19tik 25era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

#### 22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

#### Urri bi. 26tik zementziaren 1era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

#### 22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

#### Urte osoan

#### 22:00etatik 09:00etara

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

#### Medikuak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areata:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

#### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areata:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

#### Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

#### Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

#### Parketxea

94 673 92 79

#### Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

#### Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

#### Trenak

Euskotren 902 543 210

#### Bizkaibus\* 902 222 265

#### Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

#### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

#### Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

#### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

#### Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

#### Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

#### Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

#### Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

#### Artea-Zeberio-Arriorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan

06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

#### Zeberio-Arriorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10,

11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

#### Arriorriaga-Zeberio-Artea

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Arriorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40,

12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

#### La Union\* 94 427 11 11

#### Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioakoak 18:30ean.

#### Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioarik ez dago.

### Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Vicesecretaría de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Ainhoa Duñabeitia, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

**Publizidadea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areata), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

**Tiradea:** 6.800 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)


BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Mihimen



Mihimena (mímena, agoskatuta) leku ezoetan eta Arratiako errekondoetan ugari urtetan dauan arbola txikia eta botanika arloko berba bat da. Otzarak, zaranak eta beste hairbat gauza egiteko erabilten dira bere abar mehe, bigun eta luzeak. Esate baterako: "Porruen txortea mihimenagaz lotuta ipini". Mihimin esaten jako Diman eta Igorren, eta euskera batuaz zume da bere izena. Mihimentza (Mimentza), beste aldetik, mihimen moltsoa izateaz aparte, Zeanuriko leku-izena eta Igorreko baseri (mimintze, agoskatuta) eta abizena da.

## ERETXIA

### Burujabetasun energetikoaren erronka



#### GORKA JAUREGI

Energia aholkularia

**N**ok ez dau desiratzen konsumiduten dauan energiagaitik gitxiago ordaintzea? Azken sei urteotan, argindarraren fakturak % 65 egin dauala gora nabaritu dogu gure etxeetan eta familia askorentzat onartezina izan da energiaren gastua gain hartzea. Enpresa munduan be eragina dauka energiaren balioaren igoerak, guztiz globalizaua dan merkadu ereduak beste herrialdeetako enpresen aurrean lehiakortasuna murrizten deutse-eta.

Gaur egun, energia sortzaileen merkaduaren zati handiena 5 multinazionalen menpe dago. Oligopolio egoera honek errendimendu handienak bermatzen dituan estrategiak diseinatu eta ezartzea ahalbidetzen deutse, benetako balio errealetik urrun dagozan prezioak eskeiniz. Energia zerbitzu publikoa suntsituz, merkaduaren liberalizazioa kontsumitzailearentzat onuragarria zala saldu euskuen, baina energia politikak egiteko ahalmena galtzea besterik ez da lortu, tarifa defizitari men egiteak suposatzen dauan bahiketearen eta merkadu librearen dogmaren bitartez.

Beraz, eredu energetikoaren aldaketea mahai gainean jartzea beharrezkotzat jotzen da. Alde batetik, herrialde aberatsen konsumo maila mantenduteko adina erregai fosil ez dalako izango etorkizun hurbilean, eta klima aldaketeari eusteko ezinbestekoa dalako, baina batez be baliabideen kontrola energiaren oligopolioaren eskuetan ixten dauan energia eredu honek norbanakoak energiagazko daukan burujabetzea murrizten daualako, eta eskusino egoerak sortzean ditualako. Gure esku dago eredu honen birmoldaketearen erantzule diran ordezkari politikoak aukeratzea, baina baita eraginkortasun energetikoari arreta

gehiago ipintea, alferreko gastuak saihestuz konsumoaren murrizketea lortzeako. Konsumo maila bera mantentzen ezker, eredu energetiko jasangarria bermatzea ezinezkoa dala esan daikugu.

Aurrezpen, eraginkortasun, energia barriztagarri eta burujabetza elektrikoa lango berbak energia eredu barri baten ezinbesteko lau zutabe izan beharko leukie. Energia eskariaren kudeaketa egokia konsumoaren murrizketan eta eraginkortasun

energetikoaren hobekuntzan oinarritzea garrantzitsua da, batez be enpresa txiki edo ertain eta etxe eremuan. Kudeaketa hau aurrera erodateko gomendagarria da gai honeetan aditua izatea, eta hor sortzean da beste erronka bat, norengana jo informazio edo aholku eske.

Aitatzekoa da, krisiak eraginda "slamming elektrikoa"-ren sortzailei zelaz zorrotz jakien adimena, atez ate deskontu "handiak" eskeintzen dituen saltaileak, kasu gehienetan bezeroentzat bape be onuragarriak ez diranak, konsumitzaileengan eze-gonkortasuna eta mesfidantzea sortuz. Hau ekiditeko, energia gestore edo kudeatzailearen figura da aholkularitza eta kudeaketearen bitartez kostuak murrizten eta konsumoak optimizetan lagunduko deuskun konfiantzazko figura lagungarria.

Laster negua dator eta beragaz energiaren konsumoaren igoerea be bai, berak lagundu gaitez beraz gure instalazioak eraginkorrak diran egiaztatzen, eta aurrezpena lortzeako edo hobekuntzak egiteko pausuak zeintzuk diran erakusten, adibidez, konsumo ohiturak aldatuz edo luminariak barriztatuz. Eraginkortasun energetikoak ez garoaz soilik % 10-40 arteko aurrezpena lortzera, baizik eta ondino garrantzitsuagoa dana, ingurumena zaintzera eta gure bizi-kalitatea hobetzera be bideratzen gaitu.

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...  
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enpresak Batz gurea

MONDRAGON

**LUMATUTEN**



**LAURA RUIZ**

**Coño potens, irakurri eta zabaldu!**

**D**iana Torres, *Pornoterismo* liburuaren idazlea, andra berezia benetan. Heteronormatibidarearen bazterretan baino, aurreko espaloian jantzan eta zirikatzen pasau ditu urteak, eta gelditzen jakozanak. Orokorrean ez da publiko guztia-  
rentzat, eta nik ez deutsat edozeineri gomendatzen. Lagunak baino, etsaiak topatzen dituan horreetakoa, gehien bat transgresinoari erresistentziak ipinten badeutsaguz! Baina entzuteko gogo apur bat badozu harrapatu egingo zaitu, zure nortasunaren zirrikiturik txikienera helduko da eta kolokan jari. Hori gertatu jatan niri *Pornoterismo* irakurterakoan... nire sexualidadeagaz aurrez aurre. Orain arte ikasitako oztopo guztiak mantentidu edo iluntasunera salto egin? Artista honek liburu barri bat aurkeztu dau: *Coño potens*. Gauza bakaraz egiten dau berba, oso sakon... baina bakar bat: aludun

personen eiakuletako gaitasunaz. Eta hau bai, publiko guztiari gomendatzen deutsat. Alde batetik gure gorputzak ezetuteko eskubidea ukatu deusku sistema heteropatriarkalak, gure gorputzaren alderdi batzuk guztiz ostonduz. Androk ez dakigu prostata dogunik, inork imajinetan dau pankreasa daukagunik ez jakitea? Ba gure prostatea eskura dogun arren, pankreasa baino gitxiago ezetuten dogu... Atera kontuak. Bestetik, eta ondorioz, gure plazerra kudeatzeko eskubidea lapurtu deusku heteropatriarkaduak. Zelan da posible andra askok eiakulazioa txisa egiteagaz nahastutea? Eiakulazioa, eta ondorioz orgasmo bat edo beste geldiarazotea, sentsazio hori txisagurea dalakoan? Hain da ezezaguna gure funtzionamentu hau, sistematikoki geldiarazo dogula gure gorputzetan. Hain da ezezaguna andra askok arduratuta medikuarengana jo dabela. Diagnostikoa? "*Incontinencia urinaria durante el acto sexual*". Urtenbidea? Prostatea erauztea. Liburua goitik behera irakurtea gomendatzen deutsuedan arren, zailantzak dituanarentzat: eiakuletan doguna ez da txisa. Hile honetan Emakumeen Mundu Martxea izan dogu Arratian. Jantzan egin, kaleak hartu, aske izan arte martxan jarraitu... eta, mesedez, eiakulau! Ez sexuaren helburu moduan, sexua askoz gehiago dalako, eta eskerrak! Eiakulazioa berreskuratzea ahalduztea dalako baino! Busti zuon oheak edo maitaleen esku eta agoak! Irakurri egizue *Coño potens* eta gozatu!

**ZERTZEAN**



**JON ARTETXE**



**BEGI TXINDORRA**

**U**rri lehenengoaren 26an, Urkuzuko (Igorre) Leire Arrese eta Aritz Ortuzarrek hamasei ordu eta 20 minututan 80 km. egin ebezan mendiz mendi. Mendizaleak, Gangurenak urte birik behin antolatuten dauan Hiru Gurutzetako Ibilaldian hartu eben parte eta Gorbeia, Saibigain eta Lemoatxako tontorrak zapaldu ebezan. "Ez neban pentsetan amaituko genduanik. Ordura arte egindako ibilaldi luzeenak 8 ordukoak ziran eta" dino Arresek. Lar preparau barik joan zirala dino. Entrenamentu moduan inoz etetik, Urkuzutik, Gorbeia eta Saldropora joan zirala eta udan Hiru Erregeen Mahaia eta 8 orduko ibilaldia egin ebela dino. Asmoa amaitutea zala. Eta bai amaitu eben, polito gainera. Izan be, denporea be soberan euki eben, 20 orduko denporea egoan 80 km.ak egiteko eta. Akaso luzeagoa izango da egingo daben hurrengo ibilaldi luzea, Hiru Handiak, barbarako. Izan be, esperientzia polita izan zala eta sano ondo pasau ebela dino Leire Arresek. Eta behin norberaren mugen bila jarri ezker, oso-oso urrun ailegau leiteke.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odotzargia  
Bidebarri 1. behea  
48140 Igorre-Bikala  
T. 94 631 50 39  
Kalegatu Zerbate 100  
R.P.S. 21/06

**OPEL**  
**Ibaigane, S. Coop. Ltda.**  
Estazioa, 15  
48330 LEMDA (Bikala)  
Tels. 631 33 30 - 631 31 31  
Fax 631 36 15

**24h** EGUNEKO  
**OGIA**  
vending pan  
**IGORRE**  
Lehendakari Agutse

## AREATZA

# Antxinako edariak Areatzako Euskal Jaian



AREATZAKO VIII. EUSKAL JAIA  
2015eko urriaren 24. zapatua

11:00-14:30 OHIKO FERIA  
Baserrietan egindako likor, ardo eta bestelako edabeak

11:00 plazan: Euskal dantzak  
11:30 Umeen herri kirolak  
12:30 Xake erraldoia

13:00 KANTU JIRA  
15:00 Herri bazkaria frontoian eta bazkalosteko kantak  
18:30 Erromeria JOKALDI taldeagaz  
21:00 Berakatz zopa

BAZKARIAK  
TKARTELAK  
TARREPRATAN  
SALGI

### Erredakzioa

Urri bigarrenaren 24an, zapatuan, izango da Areatzako VIII. Euskal Jaia. Antxinako edariak izango da aurtengo gaia eta ohiko azokan txoko berezia eskeiniko jakie baserri eta etxeetan egiten ziran likore, ardao, txakolin, sagardo eta beste edari batzuei. Orozkoko garrafea, Otxandioko limonadea, Urduñako txakolina, Etxeandia garagardoa, eta Lantziegoko ardaoa dastatzeko aukerea egongo da.

### Xake erraldoia

Jaia 11:00etan hasiko da, txupina bota eta jantza taldeak eskeiniko daberen erakustaldiagaz. Gero, Areatzako herri kirol taldeak gazte-entzako herri kirolak antolatu dauz eta ostean, sortu barri dan Xake Alkarteak, xake jokoa antolatu dau

plazan. Lurrean egongo dan tablero erraldoiaren gainean personak izango dira fitxak.

Ordubetetan kantu jirea. Billaroztarrak herritik zehar ibiliko dira kantuan eta jantzan, txistu, trikitixa eta gitarrearen doinuak lagunduta. Bazkaria frontoian izango da 15:00etan eta 300 lagunentzako tokia dago. Sarrerak Areatzako tabernetan erosi daitezke. Bazkalostea lagun giroan egin ondoren, erromeria egongo da eta Euskal Jaiari amaierea emoteko berakatz-zopea gaueko bederatzietan.

### Erropa tradizionala

Antolatzaileak "billaroztar eta arratiar guztiak dei egiten deutsee urtero legez jai giroan gozatzeko eta euskal erropa tradizionala janzteko".

## ARRATIA

# Mankomunidadeko koordinatzaile izentau dabe Iñaki Barrenetxea



Arratiako Udalen Mankomunidadea.

### Erredakzioa

Urri bigarrenaren 7an, Arratiako Udalen Mankomunidadeko (AUM) Osoko Batzarrek, Iñaki Barrenetxea Iriondo, Lemoako EAJ-PNVko zinegotzia, erakunde koordinatzaile izentatzea ebatzi eban, kontrako boto barik. EH Bildu abstenidu egin zan.

Barrenetxearen beharra Mankomunidadeko sailen eta arloen beharrik koordinetea izango da, arreta berezia eskeiniz Gizarte Ekintzari,

Ekonomiaren Sustapenari, Ingurumenari Hondakinen Kudeaketea bame, eta Bardintasanari.

Barrenetxeak 55 urte ditu eta esperientzia luzea dauka enpresa pribaduko kudeaketan. Udal kudeaketan be esperientzia dauka, Lemoako Udalean zinegotzi eta alkateorde moduan egon da beharrea eta. 1991n hasi zan zinegotzi eta 2011 eta 2015 artean parentesia egin ostean, 2015eko maiatzaren 24ko udal hauteskundeetan barriro buel-

tau zan udaletxera.

**EH Bildu eraketa honen kontra** EH Bilduk, EAJ-PNVk "kudeatzailea kendu eta politiko bat funtzino hori beteten" ipini nahi izatea salatu dau. Koordinatzailearen funtzinoak ezin dira kudeatzailearen funtzinoak izan, legearen kontra doalako politikoa kudeatzaile lanetan ipintea. Barrenetxea euskalduna ez izatea be kritikau dau Bilduk.

Batzar eta Plenoen ordutegia, goizeko 08:30ean izatearen kontra be agertu da EH Bildu, ordezkarien eta herritarren parte-hartzea zailtzen daualakoan.

### Batzordeetan herri guztiak ordezkatuta

Urri bigarrenaren 7ko Osoko Batzarrean, EH Bilduk proposatutako neurri batzuk onartu ziran; esate baterako, batzordeetan herri guztiak ordezkatuta egotea. Izan be, EAJ-PNVren antolakuntza proposamenean, batzordeak, herrien arabera antolatu beharrea, alderdien arabera eratutea proposatzen zan.

## ARRATIA

# Dena ez da futbola film laburraren estreinaldia Igorren

### Erredakzioa

Kurkuxetan alkarteak, Euskal Herriko eta Venezuelako umeak ekoiztutako *Dena ez da futbola* filma estrenauko dau urri bigarrenaren 21ean, 18:30ean, Igorreko Kultur Etxean. Film honen eszena batzuk Igorren eta Diman grabau dira eta protagonista batzuk be arratiarrak dira.

*Dena ez da futbola* euskal eta venezuelar umeak egindako koproduzinoa da eta bertan, euren

ikuspegitik ikusita, futbolearen sarritan gertatzen diran zenbait egoera azaltzen dabez. Adiskidetasuna eta genero bardintasuna dira argumentuaren oinarriak.

Etxeberria abizena daukien mutil venezuelar bat eta neska euskaldun bat baztertu egiten ditue euren lagunak. Mutilaren kasuan, ustez, futbolearen txarto jokatzeko daualako; eta neskearen kasuan, neska izateagaitik. 7.000 kilometro baino gehiagok urrundutako herri eta kultura bi-

tan bizi dira, baina internet bidez alkar ezetuten dabe eta bakotxari gertatzen jakona alkarrerikontau ostean, egoerari aurre egitea ebazten dabe.

Film honegatz batera Unidade Didaktiko bat prestau dabe, pelikulearen material osagarri moduan.

**Protagonistak:** Alaitz Zelestino, Iratxe Bernaola, Jose Alejandro Jimenez.

**Zuzendaritza orokorra:** Rita Naveira eta Koldo Zelestino.

**Venezuelako Zuzendaritza eta lan taldea:** Norma Courlaender, Alfredo Medina eta Edwar Guanipa.

**Grabaketak:** Venezuelan eta Euskal Herrian: Igorre, Dima eta Coron.



Gure ikastetxeak Euskalduna kalidadezkoa herrikoia

J.B. Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezuntza  
Lehen Hezuntza  
Derrigorrezko Bigarren Hezuntza  
Batxilergoa  
Hezuntza Zinloa  
2 urtetan 18ra

## LEMOA

2016ko egutegia egiteko  
Argazki Lehiaketea

## Erredakzioa

Lemoako IV. Argazki Lehiaketea ipini dau martxan Udalak, argazkigintza sustatzeko eta 2016ko egutegirako argazkiak aukeratzeko. Hamabi argazki aukeratu dira, lehiaketan parte hartzean daben guztien artean. Argazkien gaia Lemoa da eta parte hartzeako epemuga urri bigarrenaren 30a da.

Lehiaketan edonork hartu daiteke parte, dagozan hiru modalidateetako baten: zuri-baltzean, koloretan, edo eskuko telefonoagaz egindako argazkiak bialduta. Ez da argazki panoramikorik onartuko. Lanak 16cm x 20 cmko tamainua euki behar dabe eta kultura@le-moa.net helbidera bialdu behar dira.

Hamabi argazkik eukiko dabe saria. Saritutakoak egutegian agertuko dira eta 30 euro jasoko dabez. Sari banaketea Gabonetan izango da.



## ARRATIA

Arratiarrak harrera ezin  
hobea egin eutsien  
Mundu Martxeari

## Erredakzioa

Bizikleta eta kotxe karabana handia egon zan karabana feministeagaz bat egiten. Herri bazkarian 105 lagun batu ziran. Partaideen ustez, orain dala gitxi arte pentsaezina zan feminismotik egindako deialdi

egon zan karabana feministeagaz bat egiten. Herri bazkarian 105 lagun batu ziran. Partaideen ustez, orain dala gitxi arte pentsaezina zan feminismotik egindako deialdi



batek hain erantzun handia izatea Arratian, 15.000 persona inguruko eskualde baten.

Hurrengo egunean be Bilbon egon ziran Arratiako andra talde eta talde feministak eta "Arratia Feminista" pankarteagaz hurrengorarte esan eutsien Emakumeen Mundu Martxeari. Orain, Euskal Herria itxita, Emakumeen Mundu Martxea aurrera doa Lisboarako bidean. Han be egongo dira arratiarrak andren giza eskubideak aldarrikatzen.

## ARRATIA

Burdinagaz lotutako  
ondarea ezetuteko bisitak  
Areatza, Zeanuri eta Ubiden

Aurtengo Ondarearen Europako Jardunaldiak burdinari lotutako ondarea izango dabe ardatz.

## Erredakzioa

Hori dala eta, Areatzan Arragoeta eta Abendañotarren burdinolara bisita gidatuak antolatu ditu Areatzako Udalak. Zeanurin, herriko atzen ferratzailea ekarriko dabe gogora eta sorreran burdinola izan zan Olabari errotara eta Barazarko zentral hidroelektrikora bisita gidatuak egongo dira. Ubidetik Zeanurira doan galtzadatik be burdina garraiatzen zan eta galtzadea eta bide horreek ezetuteko aukerea egongo da hileon.

XVI. gizaldian, Abendañotarren burdinolaren jardurearen



eraginaz, herri-ingurua sortu zan burdinolaren inguruan. Hango sutegiak eta arragoak zirala eta, Arragoeta izena emon eutsien lekuari. Areatzako Udalak bisita gidatuak antolatu ditu leku horreen historia ezetutera emoteko. Bisitok urri bigarrenaren 17an eta 18an, 11:00etan (euskeraz), 12:00etan (gaztelaniaz), 17:00etan (euskeraz) eta 18:00etan (gaztelaniaz) izango dira.

## Zeanurin, burdinola eta zentral hidroelektrikoa

Jon Urutxurtu eta Ana Mari Pujanaren eskutik Zeanuriko ferraketa tailerra bisitetako aukerea egongo da urri bigarrenaren 17an goizeko hamarretan. Herriko atzen ferratzailea, Constan Etezarraga ekarriko dabe gogora eta ondoren Olabarrira joango dira, sorreran burdinola izan zan eta.

Hilaren 28an, barriz, Barazarko zentral hidroelektrikora bisitea antolatu dabe Zeanuriko Udalak eta Iberdrolak. Barazarko zentralak gaur egun sare orokorarentzako energia ekoizten badau be, sorreran 50eko hamarkadan, industria

siderometalurgikoari zerbitzu emoteko sortu zan, batez be Altos Hornos de Vizcaya enpreseari.

Hitzordu biak Zeanuriko plazan, 10:00etan dira, baina alde z aurretik izena emon behar da udaletxean partaide kopurua mugatua da eta.

Ubideetik Zeanurira Erdi Aroko  
harbidea jarraituz

Urri bigarrenaren 31n, Zeanuriko eta Ubideko Udalak Larreen Mankomunidadeko kontuen kitapena egingo dabe eta bakea barritzatuko dabe. Batzar hau aprobetxauz, Ubide-Zeanuri Larreen Mankomunidadearen IX. Zeharkaldia egiteko aukerea be eskeiniko da. Batzarra zein zeharkaldia Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako Ondarearen Europako Jardunaldien egitarauaren barruan dagoz. Izan be, bide hori burdina garraiatzeko be erabili zan.

Zeharkaldiaren urtekerea Ubideko plazan izango da goize-

ko 10:00etan. Plazatik abiatuz, Erdi Aroko galtzadeak jarraitzen eban bidetik joango dira parte-hartzaileak, eta jadanik bigarren kilometroan galtzadearen arrastoak argi eta garbi azaltzen diran tarte batetik ibilteko aukerea izango dabe. Tarte hori amaitu ostean, jaitsiera hasten da Saldroporantza zuzentzeko; hemen Otzarretako pagadiaren ondotik, Lapursasitik igaro eta Txareta ingurura arte paraje zelaietan ibiliko dira, Ipiñaburu auzunerantza joteko; aurbereha hasi bezain laster arbelgune bat azaltzen da, eta gizaldietan zehar gurdiak itxitako gupil markak ikusi daitezke bertan. Aldain auzunetik igaroterakoan, galtzadatik etozan zaldien posta-etxea egoan ondotik igaro eta Undurraga auzunean sartzean da bidea. Undurragan urtegiaren eskoiko ertzetik jarraituko dabe parte hartzaileak, azkenik Zeanuriko plazara heltzeako. Guztira 12 km. inguruko zeharkaldia da.

Ibilaldia amaierea emoteko 13:00etan, Zeanuriko eta Ubideko zinegotziak batzartu egingo dira Zeanuriko udaletxean; bilera horretan idazkariak udalari bakotxean izena emon daben abelburuen kontuak egingo dabez, bilera agiria sinatu eta ondoren, danak batera bazkaltzera joango dira. Datorren urtean gauza bera egingo da, baina Ubideko udaletxean, eta bazkaria ordaintzea be ubideztarrai egokituko jakie.

## Ibilbideari buruzko zehetasunak

**Eguna:** Urri bigarrenaren 31, zapatua.

**Izema emotea:** Ubideko plazan, doban.

**Autobus zerbitzua:** 09:00etan Zeanuriko plazatik Ubidera, zeanuriztarrak edota Zeanurin kotxea ixten dabenak Ubideko abiapuntura eroateko. 2 €. 13:30ean Zeanuritik Ubidera, ubideztarrak edota Ubiden kotxea itxi dabenak eroateko. 2 €.

**Urtekerea:** 10:00etan.

**Ibilbidea:** 12 kilometro inguru. Bi ordu eta erdi inguruko iraupena, martxa lasaian.

**13:00etan,** Ubideko eta Zeanuriko Udalbatzen batzarra Zeanuriko udaletxean Bazka-larreen Mankomunidadeko kontuak egiteko eta bilera agiria sinatzeko.

**Antolatzaileak:** Ipizki Taldea, Joko Alai Elkartea, Amexier Mendi Elkartea eta Ortuzar Ubideko Gazte Asanbladea.

**Laguntzaileak:** Zeanuriko Udala, Ubideko Udala, Gorbealde Landa Garapenerako Elkartea, Arratiako Gurutze Gorria, BBK eta Bizkaiko Foru Aldundia.



Ubiden igaz egindako batzarra.

## ZEBERIO

### Tamainu handiko hondakinak jasoteko eguna

#### Erredakzioa

Urri bigarrenaren 26an, Zeberion tamainu handiko hondakin solidoak batuko ditue; hau da, altzariak, sofak, koltxoak, eta abar. Zerbitzua erabili gura izan ezker udaletxera deitu behar da izena emoteko hilaren 23a baino lehen.

## IGORRE

### Euskera Sailak Mintzanet aurkeztuko dau

#### Erredakzioa

Urri bigarrenaren 29an, arrastiko zortziretan, mintzanet.net aurkeztuko dabe Lasarte Aretoan. Igorreko Euskera Sailaren asmoa, proiektu honen azalpena, Berbalagun proiektuaren aurkezpen moduan erabiltea da. Mintzanet kudeatzen dauan enpresek aurkeztu eta zelan erabili azalduko dau.

Maramara Taldea enpresek kudeatzen dau irabazi asmo bako Mintzanet proiektua. Eusko Jaurilaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalen laguntza jaso dau eta bere helburua, "munduko edozein txokotan egonda be euskeraz berba egiteko aukerea" emotea da. Internet bidez euskeraz berba egiteko lagunak topetan ditu Mintzanetek, ordua eta gaia zehaztu ezker.

## ARANTZAZU

### Herriko Taberna hartzeako kontratua

#### Erredakzioa

Arantzazuko Udaltzako, Herriko Tabernako eraikineko instalazioak ustiatzeko kontratu administratiboaren Baldintza Plegua onartu dau. Baldintza Plegua, udal bulegoetan aztertu daiteke. Eskeintzak eta agiriak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean agertu eta 20 egunen barruan aurkeztu daitezke.

## ZEBERIO

### Taberna Zaharra eta Turismo estudioak

#### Erredakzioa

Zeberio Udalak, Taberna Zaharren ustiapena eta Turismo estudioen kudeaketa alokairuan esleitzea onartu dau. Interesatuak, eskeintzak urri bigarrenaren 26a baino lehen aurkeztu behar dabez. Dokumentazioa udal txean edo zeberio.net webgunean eskuratu daiteke.

## DIMA

### Herri ortuak hartzeako izena emoteko epea zabalik

#### Erredakzioa

Dimako Udalak, 2013an Ibarren, erresidentzia ondoan daukazan lurretan, herri ortuak eskeini eban. Hamabi partzela, hain zuzen. Gaur egun partzela honeen emakida izan eben auzotar batzuek uko egin deusie 2016an ortua erabilteari. Hori dala eta, Udalak epe barri bat zabaltzea ebatzi dau ortua izateko interesa daukien herritarren urri bigarrenaren 26a baino lehenago izena emoteko udal bulegoetan.

## LEMOA

### Parekidetasun Gunerako deialdia

#### Erredakzioa

Lemoako Udalak, herriko alkar-te, talde eta banakoak deitu ditu Parekidetasun Guneraren parte hartu dagien. Izan be, herritarren ekarpenak ezinbestekoak dira herrian aukera bardintasuna zelan biziten dan jakiteko eta bizipenetatik sortutako urtenbideak topatzeko.

Batzarra, urri bigarrenaren 16an izango da, arrastiko seiretan, Jubiladuen Etxeko goiko solairuan. Konziliazioa errezteko, ordubete baino gehiago ez dala luzatuko emon dabe jakitera Lemoako Udaletik.

## ARRATIA

### Aurrekontuak genero ikuspegiagaz aztertzen dabil Mankomunidadea

Aurrekontuak lehentasunak gauzatzeko tresnarik garrantzitsuenak dira eta eragin desbardina ditue andra eta gizonengan. Horregaitik, genero ikuspegitik aztertuko dira, datuak jaso eta hobetzeko neurriak hartuko ditue Arratiako Udalen Mankomunidadeak eta Arratiako Udalak.

#### Erredakzioa

Mankomunidadean eta udaletan, jardura guztietan genero ikuspegia landuten dabiz "beti be kontuan izanda andrak eta gizonak baldintza, egoera eta behar desbardinak dituela" azaldu eban Miren Urresti Mankomunidadeko Bardintasun Teknikariak. Aitatu-tako prozesuaren barruan, udalak herriko alkar-tei emondako diru laguntzak aztertzen hasi dira, genero ikuspegia kontuan hartuta.

Prozesuan lagunduteko, mankomunidadeak eta udalak, Berdinbidean Bizkaia programearen laguntza izango dabe. Bizkaiko Foru Aldundiaren programa honek, herri txikiak bardintasunerako politikan laguntza emoten deutse. Berdinbidearen bitartez, Yolanda Jubeto ekonomilaria, genero ikuspegidun aurrekontuetan aditua, Arratian izan zan urri lehenengoaren 30ean, udaletako arduradun politikoi eta teknikoai egin beharreko azalpenak emon eta zalantza erantzuteko.

#### Heziketa landuteko autobusa

Heziketearen garrantziaz jabetuta, Mankomunidadeak hasikerahasikeratik ipini eban martxan heziketea landuteko programea, bai hezkuntza formalean, eskolatan, bai hezkuntza informalean, aisialdia eta udalekuetan. Lana, irakasle, ikasle eta guraso alkar-teak egiten da, Berritzegunegaz koordinatuta.

Horregaitik, Arratiako Udalen Mankomunidadeak Bardintasu-



sunerako Guneraren hartuko dau parte aurren be. Izan be, urri bigarrenaren 19an, 20an eta 21ean, Bardintasunerako Guneraren autobusa Arratian ibiliko da, 19an Areatzako Eskolan, 20an Igorreko Institutuan eta 21ean Lemoako Eskolan, goizeko 09:00etatik arrastiko 17:00ak arte.

Lehen Hezkuntzan, irakasleak, irakasleak eta guraso alkar-teak hezikidetzeari buruzko prestakuntza izango dabe. DBHkoak, barriz, Beldur Barik programa landuko dabe. Amaitzeko, irakasle eta gurasoentzako ikastaroak be egongo dira.

#### Beldur Barik Lehiaketarako gidoi tailerra

Mankomunidadeko Bardintasu-

Zerbitzuak Beldur Barik Lehiaketarako gidoi tailer bi antolau dauz urri bigarrenaren 23an eta 30ean. Bertan, 12-26 urte bitarteko Arratiako edozein gazte hartu leike parte. Tailerren helburua gazteen artean sexismoa detekatu eta prebenidutea, eta horregaz batera Beldur Barik Lehiaketara aurkezteko lanak prestatzen laguntza dala ekarri dau gogora Bardintasu Teknikariak.

Tailerra egiteko aukera bi egongo dira: 16:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Edukiaren aldetik, lehenengo saioan sexismoa zer dan, Beldur Barik Programea aurkeztu eta hausnarketea egingo dabe gazteak. Ondoren, bigarren saioan, gidoiak egingo dabe.

## ARRATIA

### Kozineru ona zara?

#### Erredakzioa

Sukaldaritza gauza pribadua izatetik gauza publiko izatera pasau da aspaldi honetan, horrek dakarren ospe eta izen onagaz. Eguneroko bizimodurako behar bat izatetik, gitxi batzuek ondo egiten daben artista lana izatera pasau da. Sukaldaritza eskolak,

ikastaroak, telebista programak, blogak eta abar zientzok agertzen dira eta arrakastatsuak izaten dira gainera.

Baina modatik harago, eguneroko sostengua eta hizkuntza bat be bada sukaldaritzaren izen be, askok berbak erabilita baino errezago adierazoten dabe euren sentimenduak jateko prepa-

tan. Horregaitik orainoan, jakin gura izan dogu ea gure irakurleak sukaldaritzagazko interesa daukien eta zelangoz kozineruak diran.

- Hauxe da itauna:
- Badakizu sukaldatzen?
- Eta erantzun posibleak:
- Eguneroko jatorduak prestatzeko lain bai.
  - Eguneroko jatorduak eta familia eta lagunaren arteko ospakizunetako jatorduak prestatzen dodaz.
  - Bai, maila profesionalen.
  - Oinarri-oinarritza baino ez.

## KORDELERIA

# Lemoako kordel fabrikea

Sisala zuntz naturala da eta oso gogorra, "ia alambrea bezain gogorra" gure iturriren batek esan eban legez. Hogeigarren mende hasieran material hau modan jarri zan kordelak egiteko. Lemoan be, Zubiate auzoan, Cordelería Mecanizada enpresa sortu zan. Foru Aldundiaren Artxiboan dagoan lehen aitamena 1.920koa da. Lantegiak 80. hamarkadara arte kordelak ekoizten ebazan. Hasieran Sasieta eta Aldekoaren aginpean eta gero Sasieta eta Zabaletarenean. Sisala eta kalamua erabili ebezan kordelak egiteko eta enpresearen produktua itsasketaren eskaerari begira bideratu eben. Produktuen artean baegozan: txikoteak, estatxak, kalabroteak, istinkatzeko iztupak, sareetarako hariak, ur handitako arrantza egiteko hari indartuak eta abar: "Kordel batzuek berrogeta hamar zentrimetroko lodiera baino gehiago izan eben", esan eban 79 urteko gure barriemoileak, besoakaz zirkulu handi bat osatzen: "Eta beste batzuek berrehun metroko luzeerea eukien".

**Mauro Saravia (Hego Izarra Elkarte) eta Jürgen Lange \***

Kordel lantegiko hiru solairuetan gizonak eta andrak egiten eben behar, guztira hirurogei persona baino gehiagok. Gehienak lan egiteko gogoia eta gaitasun berezia eukien baina lanbide heziketa formalik ez. Seguru asko, hau izan zan errazoi garrantzitsuena, Cementos Lemonan legez, kordel lantegian be inguruko beste lantegietan baino zerbaist gitxiago ordaintzeko. Langile honeen artean Arratiako baserritar asko egozan. Esan daiteke, kordel lantegian, Arratiako jente arruntak lan egiten ebalan eta horrexegaitik, uste dogu Lemoako kordel lantegia gure patrimonio historikoaren parte bat dala.

Orain dala hirurogei urteko historiaren, politikaren eta kultura ren testuinguruan, Arratiako andra gehienen destinoa etxe-koandrea izatea zan. Hau da, ez eben hezkuntza profesional berezirik jaso, garaiz ezkonduko ziralakoan egozan; eta ezkondu bezain laster, lantegia itxi egiten eben, etxe-koandrea izateko. "Andra batek hogeta lau edo hogeta bost urte bete arte beharrean jarraituten baeban kordel fabrikari, neska zahartzat hartzean zan". Ondorioz, gizonakaz gertatzen ez zan legez, lantegian kontratauta egozan andra gehienak hamazortzi eta hogeta bi urte artekoak ziran. Horreezaz gainera, alargunak be baegozan.

Artikulu honen bidez, antxinako langile kuadrila tipiko baten sartu gara: Eureka lanera joan eta fabrikari sartuko gara, lanaldi eta atsedenaldira bat egingo dogu zelan bizi eta zer pentsetan eben jakiteko. Gure lagunak Bediako Ereño auzoan, Mandoiaren azpian, jaio eta gartzarok bizi izan eben. Baserrikoak ziran, eta laster bizimodu horren beharretan trebatu behar izaten ziran. Lana ondo ezaguna zan baserrietan baina dirua ez hainbeste, eta horregaitik eskolea itxi eta gero,

lantegira joaten ziran: "Hamalau urtegeaz, eskolea itxi eta gero, lantegian pintxe moduan lan egitea eskatu neban, baina ez ninduen hartu legearen kontrakoa zalako. Hamazortzi urte bete ondoren barriro aurkeztu nintzan eta orduan bai kontratauta ninduen eta Gizarte Segurantzaren alta emon".

**Belen, Miren, Antonia eta Urbana**

Gure langile kuadrilea urte askoan lau baserriko andraz osotuta egon zan: Belen, Miren, Antonia eta Urbana ziran andra honeek. Lauretatik bik gaur egun 79 eta 82 urte ditue, bat Lemoara ezkondu zan eta bestea Zeberiora. Alkarregaz joaten ziran kordel lantegira. Ereñotik Zubiatara 6 km.ko distantzia dago, hamar minutuko bidea eta gasolina gastua euro bat eta hamar zentimokoa da; nire mapa digitalaren arabera. Baina, jakina, orain dala hirurogei urte eszenario honek beste itxura bat eukan. "Ordubete baino gehiago behar genduan baserrietik lantegira heltzeako. Zazpi terdian lanean sartzeako etxetik seiretan edo urten behar genduan".

Ez eukien kotxerik eta ez eben bizikletarik erabilten lanera heltzeako, eguneroko bide hau, oinez, astean zehar sei aldiz egiten eben: "Goizeko seiretan altxau eta erropea jantzi: artilezko mediak, bakeruen moduko telako gonak, alkondarea, jertsea, bufanda eta batea. Gero abarkak ipini eta listo. Hotz egiten baeban, orduan jertse bi be jantzen nebazan. Eurria zanean gabardina erabilten genduzan, etxean ahaztuten ez bagenduan. Urbana goizero etorten zan nire bila, eta beti presaz ibiltzen nintzan; horregaitik behin baino gehiagotan ahaztu egiten neban gabardinea etxean".

Aspaldian jubilauta dagoan arren ondo gogoratzen dau gure langile ohiak lantegirako bidearen eragozpenik handiena. "Ereñotik jaisten ginan eta gero errekeari jarraitzen geuntsan. Neguan, sekulako hotza



**Antonia Arana.**

egiten eban, izan be erreka ertza ia urte osoan gerizpetan dago. Neguko hotz handiak belaunetan min egiten eustan. Androk gonak eroaten genduzan eta hotzak ez tragetako nebeari frakak eskatu neutsazan eta lagunak aitari. Orduan frakak jantzita joaten ginan beharrera eta lantegira heldu arte ez genduzan kentzean".

Lantegia erreka ondoan egoan eta barruan be hotza sentiduten zan langileak mobimentuan egon arren. Orduan, solairuan sua biztuten zan. "Makinan parau barik mobimentuan egoten ginan, goiz osoan, makinea atsedenaldira arte ez zalako geldituten. Jan barik ezin neutsan eutsi eta horregaitik, beti izaten neban txokolate zatiren bat boltsikotan".

Normalean, makina baten sei edo zazpi personek, taldean, egi-

ten eben lan. Lantalde bakoetean jente desbardinak lan egin behar eban alkarregaz, eta borondate ona falta izan ez arren, ez zan erreza izaten. Lantegian arratiaz gainera, Basauriko biztanleak be ogibidea topau eben, eta orduan hizkuntza oztopo bihurtzen zan sarritan. "Nire lagunak ez bezala, nik ez nekien erderarik lantegian sartu baino lehen, eta Dos Caminosekoak euskeraz bape ez. Hata guzti be, ederto moldatu ginan".

**Mekanizautako kordelgintza**  
Sisala agabe (*Agave sisalana*) arbolaren hostotik lortzean da, Madagaskar eta Hego Ameriketara ugari ikusten da arbola hori. Hostoen azala kendu ondoren zuntza agertzen da. Uretan metro bateko luzeerako zuntz luzeenak

**Gizonak beti andrak baino zerbaist gehiago irabazten eben**



garbitu, gero lehortu, orraztu, batu eta fardoak egin behar dira esportau baino lehenago. Kanpotik ekarritako lehengai hori nahiko garestia zan, baina aproposa kordelak egiteko. "Sisala fardoetan heltzean jakun lantegira. Lehengo eta behin, gizon batek fardoak lotzean ebazan, metalezko zintak ebagiten ebazan. Gero fibra multzo bakotxa be alde bakotxean alanbre bategaz egoan lotuta. Gure lana zera zan: fibrak soltau, tira batzuk atera, batu eta modu ordenauan makinearen toberan sartu. Makinearen beste aldean sisalezko zintea ateraten zan. Zinta hau kaja baten biltzean zan, eta kaja hori gero hurrengo makinara eroaten zan".

Lemoako kordel fabrika erabilten ebezan makinak batzuk, tartean "La Manual" eritxana, Katalunian egindakoak ziran eta beste asko Ingalaterran. Izan be, produkzioaren lehengo pausua egiten eban makinearen izena "Break" zan (inglesez, "apurtu" adierazoteko). Break makineak sisal zuntza gero eta bigunagoa bihurtzen eban. Lau makinatik pasau ondoren sisal haria osotzen zan, eta gero hiru, lau edo hari gehiago beste makina baten bidez batzean ziran soka bat egiteko. Prozesu hau errepikatuz, sokea txikote bihurtzen zan. "Egoten zan breakera. Breakerako sisala fardoetan ekarten eusten. Han zabaltzen zan solairu gainean, gero makinatik pasetan zan eta handik beste breakera, handik metxerera eta gero, beste makina batera".

Produktuaren pausu guztietan makinaren indarrez baliatzen ziran, "Cordelería Mecanizada" zan-eta; baina orain dala hirurogei urteko lantegiko makinak, gaur egunekoak baino askoz arriskutsuagoak ziran eta langileen babesa be gaur egunekoak baino eskasagoa zan. "Lantegian hasi eta gitxira hatzamar osoa galdu neban, hamazortzi urte neukazanean. Kordelak harrapatu ninduan eta ezin izan neban hatzamarra atera. Senarrak be kordel fabrika egiten eban lan eta hatzamar baten puntea galdu eban. Uste dot fabrika honetan langile askok ez ebezala hamar hatzamarra gorde".

Kordel lantegiak hiru solairu ebazan. Behoko plantan sisalazko kordel lodi eta luzeak egiten ziran. Urte osorako sisal nahikorik

ez egoanez, egoana amaitu eta gero bigarren solairuan kalamuaz baliatzen ziran. Kalamua beste klase bateko materiala da, "estropajuaren modukoa", eta produktu diferenteak egiten ebezan: kordel finoak eta hariak. Kalamua be amaituten bazan, orduan, salbuespen moduan, koko zuntza erabilten eban kordelak egiteko.

Sisala egoan bitartean hauxe erabilten eban eta gero kalamua, bakotxa bere solairuan. "Makinak zarata asko ateraten eban, baina zaratea baino nabarmenagoa bigarren plantan egoan hautsa zan. Kalamuak sisalak baino hauts gehiago egiten dau. Kalamuagaz lan egiten genduan errotariak emoten genduan, dana kalamuaren hautsez estalita egoan eta gu be bai".

Lan-jarduna hamar ordukoa zan eta ordu eta erdiko atsedena egoan, gaueko zazpiretan amaitzen zan. "Atsenaldirako kanpaia jotzen ebenean, bakotxak bere makinea parau eta gelatxo batera joaten ginan etxetik ekarritako ogitartekoa jatera. Etxean arto eta garizko ogiak egiten genduzan, eta txorizo edo solomo bokadiloa eroaten neban lantegira. Inoiz patata tortillea be bai. Etxeko frutak eroaten genduzan, eta kafesnea. Beti botila bat kafesne eroaten genduan lanera. Ze goxoa zan!".

#### Beharra kantetan

Bazkaiteko kuartuan erderean zan nagusi. Bazkaiteko ordubeteko atsedendia egoan, eta kanpaiak marketan eban barriro lanerako itzulerea. Lana arrastiko zazpiretan amaitzen zan. "Askotan kanpaia ez genduan entzuten, beti kantetan ibiltzen ginalako, eta inoz jantzan be bai. Dana dala, nagusiak beti gustura egoten ziran geugaz, lan asko eta kezka barik egiten gendualako. Familia bat izango bagina legez".

Eguneko lantegiko beharra amaitutakoan, gure lau neskak etxerako bidea hartzean eban. Neguan, bide hau ilundutakoan egin behar izaten eban, eta orduan, kristalezko farolak eta kandelak erabilten ebezan. Lauren artean farola bakarragaz konpontzen ziran. Ereñorako bidea aldapaz gora doa eta horregaitik ordubete baino apurtxo bat gehiago behar izaten eban. "Etxerako bidean soberan gelditutako janariak bananduten genduzan gure artean, eta etxean amak afaltekoko taloa egiten eban".



Langile baten eskuak.

Lanean zein etxerako bidean langileak beti kuadrilan ibiltzen ziran. Ez da harritzekoa, gaur egun be orduko lan-harremana familiakoa izan balitz legez gogoratzea. "Patroia Bilboko eta erdalduna zan, eta "Buenos días" baino askoz gehiagorik ez eban esaten. Enkargaua, Zipriano Aldekoa, euskalduna zan eta beragaz harreman estuagoa eukien. "Ortua eukan eta behin pikoak ekarri euskuzan".

#### Andrak soldatea txikiagoa

Langileen artean be desbardin-tasunak egozan. "Gizonak beti andrak baino zerbaist gehiago irabazten eban". Hata guzti be, dirua ez zan gaur egun bezain garrantzitsua eta gure neskak ezin eban euren soldatea gura eban moduan gastau. Lantegian irabazten eban dirua baserrian erabilten eban, behiren bat erosteko edo. "Nire hasikerako soldatea hamabost ogerlekokoak zan, baina handik eta gitxira hilean ehun pezeta ordaintzen hasi ziran. Irabazitako guztia Galdakaoko Caja de Ahorros eraeroaten genduan, aita eta biok. Bankuko kontua aitaren izenean egoan-eta. Ezkondu eta gero senarraren izenean ipini genduan, androi ez euskuen baimenik emoten libretea norberaren izenean eukiteko".

\* Esker bereziak emon gura deusaguz Iñaki eta Ismaeleri artikulua erreztearren.

LEMONA 3/11/59

**SASIETA Y ZABALETA**  
CORDELERIA MECANICA

Estachas. - Calabrotes. - Aparejos para andamiajes.  
Estopas de calafatear. - Hilos de redes.  
Hilo de agavillar. - Malletas alambradas para pesca de altura.

FABRICA EN LEMONA  
OFICINAS: P. Urbitarte, 3, 2.º. Teléfono 19851. BILBAO

Teléfono núm. 8

**NAIARA** Hertz Klinika

Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igortze  
94 631 52 26

**Orrie**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA

L. Agirre, 7.  
48140 Igortze (Bizkaia) Telefono: 94 678 64 75

**GARANTXE** Autoeskola

TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN ERDARAZ

Baimenak: A1, A, BTP, B

Lehendakari Agirre 31  
Telefono: 94 673 71 32  
48140 IGORTZE (Bizkaia)  
garantxe@euskalnet.net

**Beer & Edariak s.l.**

HEINEKEN SOLARES

Polig. Mendaketa, nº 3. 48550 LEMOIA, Bizkaia  
Tel: 000 487 839 eta 000 200 717

**Igorren**  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

## BOLA JOKOA

## Alzustarentzat izan zan Zeanuriko kofradien Bola Txapelketea

Jon Urutxurtu

Alzustak irabazi eban urri bigarrenaren 3an Alzustako bolatokia jokatu zuten Zeanuriko kofradien arteko Bola Txapelketea. Udallerria osatzen dabean zazpi kofradietako ordezkariak hartu eban parte taldeka jokatu zuten txapelketan: Alzuak, Alzustak, Asterriak, Ibarguenek, Ipiñaburu-Undurragak, Otzerinmendik eta Uribek.

Lehen tokia, etxeko taldeak, Alzustak eskuratu eban; alzustarrak guztira 13 txirlo bota ebezan; bigarren tokian Uribe sailkatu zan 11 txirlo botata, eta hirugarrenean Asterria, 9 txirlogaz.

Alzustako taldea honako laukoak osatu eban: Juan Carlos Izurzak, Mikel Izurzak, Beñat Mendiak eta Mikel Mendiak. Irabazi eban saria: 120 euro eta afaria Kiloterdi Txokoa, Ellauri hotelaren jatetxean.



## RAIDA

## Dimako basoetan izango da IV. Arratia Raid hilaren 17an

Erredakzioa

Arratia Raid eta Areatzako Lamino Mendi Taldeak antolatuta, urri bigarrenaren 17an, IV. Arratia Raid jokatu da Diman. Mendiko bizikletea, trekkinga, orientazioa, herri kirolak, tirolina eta bulderra dira partaideak egin behar izango dituen probak aurtengo edizioan. Raid hau Euskal Herriko ligako bost probetako bat da, azken hain zuzen eta bertan ebatziko da aurtengo ligako txapelduna.


Proba goizeko 10:00etan hasiko da eta 17:00ak arte ibiliko dira partaideak mendian "galdu-ta". Ibilbide jolasgarria prestatu dabela dinoe antolatzaileak, partaideen "orientazio ezagutza

guztiak proban ipiniko ditua". Ondoren bazkaria plazako frontoian, eta material eta oparien zozketea egingo dira.

## Argazki Lehiaketea

Aurten Argazki Lehiaketea be egongo da. Holan, kirol probak egin ez, baina lagunak animetan doazenak be parte hartu ahal izango dabe IV. Arratia Raiden, argazkiak egin eta lehiaketa honetan parte hartuta. Izan be, irudi ikusgarriak egiteko aukera ezin hobe eskainiko dau raidak.

Igaz Otxandion jokatu zan III. Arratia Raid. Bertan, 54 talde; hau da, 108 lagun, neurtu ziran, kirol desbardinak batzean dituan proba honetan.



Tirolina Dimako basoetan.


## LASTO JASOTZEA

## Tubi 2015eko Euskadiko Lasto Jasotze txapelduna

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 11n jokatu zan Leioan Euskadiko Lasto Jasotze Txapelketea eta Jose Martin Bustinza "Tubi" dimoztarrak lortu eban txapela. Tubik 24 jasoaldi egin ebezan minutu bitan. Jon Loiola dimoztarrak be hartu eban parte txapelketan.

Ez zan sorpresarik izan, Tubi zan faboritoa eta. Izan be, Euskadiko Lasto Jasotzeko txapela irabazten dauan bosgarren aldia da eta urteko marka be berea da: Gipuzkoako Txapelketan 25 bider altxatu eban 45 kiloko lasto fardoa. Bigarren Lander Otermin gipuzkoarrak egin eban 21 jasoaldi eginda. Podiuma Lapurdiko or-



Bustinza Leioan.

dezkarriak osatu eban, honek be 21 jasoaldi eginda.


## MENDI MARTXEA

## Igorreko mugak ezetuteko aukerea Mugari Biran

Erredakzioa

Urtero lez, mendira joateko urte sasoirik aproposenean, Motxogan Kultur Elkarteak XXVIII. Mugari Bira, Tomas Arandiaren memoria-antolatuta dau urri bigarrenaren 18rako.

Martxak ibilbide bi izango ditu; luzeak 25 km. izango ditu eta laburrak 12 km. Ibilbide luzea egin gura dabena 08:30ean urtengo dira Igorreko kiroldegitik; laburra egiteko, barriz, ordu erdi beranduago daukie zitea partaideak. Izen emotea, kiroldegian bertan izango da urten aurretik. Holan, ibilbide luzea egin gura dabena 08:00retatik 08:30ak arte emon



behar dabe izena (5 euro, 14 urte artekoak doan); laburra egingo dabena, barriz, 08:30etik aurrera.

## ERRUGBIA

## Ahaztuteko hasikerea

Ainhoa Duñabeitia

Hasi dabe aurtengo denporaldia Zekorrek eta ahaztuteko modukoa izan da. Lehen norgehiagoka bi jokatu eta biak galdu dabez. Lehenengo neurketea etxetik kanpo jokatu eban Gernika Rugbiren bigarren taldearen kontra. Partida txarra arratiarrena, entsegu bakarra lortu eban. Azken emoitzea Gernika Rugby 80 Arratiko Zeko-

rrak 5.

Hilaren 10ean oster, etxean jokatu eban Babyauto Zarautz KE taldearen aurka. Neurketa hau be galdu eban, halanda be entsegu bi egin ebezan Zekorrek. Arratiko Zekorrek 10 Babyauto Zarautz KE 24.

Hurrengo neurketea etxetik kanpo izango dabe talde barri baten kontra, Nerbioi Amurrio taldea hain zuzen be.

## PELOTEA

## Dimara XXX. Cafes Baque txapela

Erredakzioa

Kimetz Zapiko da XXX. Cafes Baque Txapelketearen irabazlea Gazte mailan. Dimoztarrak Arratia-Nerbioi zonaldea ordezkatu eban eta 22-19 irabazi eutsan Iker Kamiruga Sopelanakoari. Hilaren 9an jokatu zan finalean, 52:28 minutuko jokoan berrehun eta larogeta hamar pelotakada jo ebezan bi mutilak Durangoko Ezkurdia frontoian. Txumuluxuetakoa ez zan finalean egindako partidugaz pozik gelditu baina txapela Dimara ekarri helburua bete eban behintzat. Halanda be, atzen aldian sano gustura olgetan ibili dala adierazo deuta BEGITURI Zapikok, pelotea asko josten ibili dala eta orain aurrerantza gogotsu ekiteko asmoa daukala.

Botileru beharretan 2012an txapelketa berbera irabazi eban Ekhi Ziarrusta euki eban Zapikok, irabazlearen esanetan garaipenaren erantzule ei da Ziarrusta, "berari esker irabazi dodala esan neike, igaz itxita neukan pelotea baina gabon ostein frontoira bueltetako konbenzidu ninduan".



## Gaztetxoak zelai barria

Zekortxoak Igorreko Udalak 105eko parkinaren ondoan egokitu dauan zelai barria estreinauko dabe, barikuro izango dabez entrenamentuak bostetatik seiretara.



## AZKOREA

### Irati Urien

Bigarrenez, Aitzol Atutxa dimoztarak irabazi dau Euskadiko Azkora Txapelketa. Hirugarren enborretik aurrera aurea hartu eban eta errez jantzi eban txapela hasikeratik faborito zanak.

Sei izan ziran Basauriko Bizkotalden hilaren 12an lehiatu ziran azkolariak: Aitzol Atutxa, Jon Irazu, Iñaki Azurmendi, Jose Mari Olasagasti, Joseba Otaegi eta Mikel Larrañaga. Atzenengo honek ez eban jokatu behar berez, ez zan saio horretarako sailkatu eta; baina, Floren Nazabal nafarra garriko arazoakaitik joan ezin izanak emon eutsan lehiatuteko aukerea. Hamabi pagoenbor moztu behar izan ebazan bakotzak, lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko. Horreek danak 42 minutu eta 36 segundutan moztutea lortu eban Atutxa II.ak. Bere atzetik gipuzkoako bi beteranoak, Irazu eta Olasagastik osotu eben podiuma.

Dimoztarra gustura gelditu zan egindako beharragaz, "erdira arte asko sakatu neban, hortik aurrera lasaitu egin nintzan zaleakaz momentua disfrutatuko". Nazabal gogoan, Aitzol Atutxak keinua euki eban nafarrak bertan egon behar ebala gogoratuz.

Momentuko azkolarik onena dala erakutsi dau Atutxak.

# Onena izaten jarraitzen dau



Aizol Atutxa.

Argazkia: Iciar Ruiz.

## FUTBOLA

# Andrazkoak polito

### Ainhoa Duñabeitia

Emakumeen Euskal Ligan dagozan Arratia taldeko andrazkoak bolada ona hartuta dabiz eta atzen astegoiaren bietako partidua irabazi dabiz. Hilaren 4an Peña Ath. Santurtzi taldea izan eben aurrez aurre eta hilaren 10ean Gasteizko Neskak taldea. Peña Ath. Santurtziren kontra jokatuak neurketan

gol bi egin ebazan arratiarrak eta hiru puntuak boltsikoratu ebazan. Hurrengo astegoienean be garaipeña lortu eban Arratiak, Arratia 3 Gasteizko Neskak 0. Hurrengo neurketea Ugaoren aurka jokatu dabe, baina data eta ordua zehazteko dagoz oraindino.

### Gizonezkoak seigarren

Gizonezkoak barriz ez dabe hain

emoitza onik euki. Atzen neurketa bietan puntu bakarra lortu dabe eta. Hori dala eta sailkapenaren 6. postura bajatu dira.

Hilaren 3an Padura taldea izan eben aurrez aurre Urbietan, bardiinketea lortu eban Arratiak bana eginda. Hurrengo astegoienean etxetik kanpo izan eben neurketea eta ez eben suberte onik euki. Hiru puntuak Derion geratu ziran, Derio 2 Arratia 1 izan zan emoitzea. Hurrengo norgehiagokea Urbietan jokatu dabe Gatikaren kontra, hilaren 17an arrastiko 17:15ean.

## MENDIA

# Arantzazuko Arginatxek antolatuko dau lehenengoz Arratia-Otxandio-Ubide XVI. Mendizale Eguna

### Erredakzioa

Hamasei urte dira Arratia-Otxandio-Ubideko Mendizale Eguna antolatuten dala. Arratia, Ubide eta Otxandio mendien taldeak txandaka antolatuten dabe martxea. Aurten, urri bigarrenaren 25ean izango da eta Arantzazuko Arginatx Mendien Elkartearen txandea izan da antolaketa.

Partaideak, Arantzazuko plazatik urteko 08:30ean, 16 km.ko ibilbidea egiteko. Bidean, Mandoia eta Arginatx tontorrek zapalduko ditue eta amaitutakoan pariladea egongo da plazan. Izen emotea 5 eurokoa da nagusien kasuan eta

debalde umeentzat. Hilaren 20a baino lehenago egin behar da.

### Arginatx Mendi Elkartea

Arginatx Mendi Elkartea 2009an sortu zan. "Arantzazuko lagun batzuek, aisialdia eta kultura sustatzeko zozker egin gura genduala pentsau genduan. Holan, mendi alkarte bat egitea ebatzi genduan" azaldu deutso BEGURI Luis Uriarte Arginatxekoak.

Alkarteak, gaur egun 106 bazkide ditu 400 biztanle baino gitiagoko herri baten. Hilean bitan joaten dira mendira eta txangoak eta astegoieneko urtenaldiak be antolatuten ditue.

## ARRATIA-OTXANDIO-UBIDE XVI. MENDIZALE EGUNA

ARANTZAZU, 2015-10-25

**Urteera:**  
Goizeko 8:30etan  
Arantzazuko  
plazatik

**Izena emoteko epea:**  
Urriak 20ra arte

**Inskripzioa: 5€ (umeak doan)**

**Izena emoteko telefonoak:**  
Arantzazu: 659 21 34 93  
Zeanuri: 669 15 65 00  
Otxandio: 656 75 77 13

**Arginatx Mendien Elkartea**  
ARANTZAZU

Lemoa: 675 70 13 59  
Igorre: 628 61 90 40  
Ubide: 696 74 49 88

**begitu**  
revista online

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu

**Fisioterapia Zentroa Igorre**  
Elexalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08

**Andra Mari Klinika**  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1. Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

ARA OTZ  
Lanegintza O Jabetzen!

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

**RUGBY TABERNA**

•Egin zaitetz bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekorrak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

**arratiako instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Pab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

## MUSIKEA

Larregi taldeak *Pantomima* diskoa kaleratu dau

## Erredakzioa

Lemoako Larregi taldeak 2014ko Banden Lehia irabazi eban eta BBK Live-n jotea eta disko bat argitaratzea izan eban sarizat. Holan, *Pantomima* (Baga-Biga) izeneko diskoa grabatu dabe eta Bilbon aurkeztu eban Banden Lehia antolatuten dauan Azkue Fundazioko lurdana Acasuso zuzendariagaz, Bizkaiko Foru Aldundiko Ana de Castro Euskera Zuzendariagaz eta Ritxi Aizpuru Baga-Biga disketxeko arduradunagaz batera. Urri bigarrenaren 23an, 22:00etan Karabie Gaztetxean joko dabez diskoko kantuak, *Pantomima* diskoa aurkezteko bireari hasikerea emoteko.

Rock eta punk arteko eremu zabalean mobiduten da Larregi eta melodiari garrantzia handia emoten deutso. Ritxi Aizpuruaren esanetan melodia itsaskorrek, pop ikutua, rock melodikoa eta hard rocka, topau daiegeuz disko honetan. Letrak, guzurreta eta itxurake-

riaren ingurukoak dira asko, hortik pantomima izena. Usurbilgo Higain estudioan dago grabata Haritz Arreguy teknikariagaz, Juan Hildaldok egin dau masterizazioa eta Bea Sierrak diseinua. Eta kolaborazio asko izan ditue Larregiok euren bigarren disko honetan, arratiarrenak batzuk. Holan, MG Bandako Ibanek tekladuak eta organoa jotzen dauz "Eroalea" edo "Ostruka" abestietan, eta Eskean Kristöko Pello Artaberen abotsa dago "Toxikoa" abestian. Larregi eta Eskean Kristö taldeak lokal berean egiten ditue ensaioak eta Banden Lehia talde biak irabazi dabe: 2013an Eskean Kristök eta 2014an Larregik.

*Pantomima* diskoan bederatzik kantu batzean dira. Letrak eta musikak taldeak berak sortutakoak dira gehienak, "57" tituluko abestia izan ezik. Hau, Biffy Clyro talde eskoziarraren kantuan oinarritutako bersinoa da. Hori bai, bersino "libre" eta "arriskatua", Larregi taldeko Unai



Larregi taldeko kideak.

Santosoren arabera. Letra gehienak, jentartean dagoan itxurakerien gainean egiten dabe berba. "Eguneroko bizitzan zintzotasuna salbuespena izaten da eta danok bizi gara maskara bategaz" esan eban Santosek Bilbon.

## Bartzelonako EH Sona jaialdia

Urri bigarrenaren 23an, diskoa aurkezteko bireari ekingo deusie eta lehenengo kontzertua Karabie Gaztetxean joko dabe. Ondoren

kontzertu asko etorriko dira eta zementarian, Bartzelonako EH Sona jaialdian izango da Larregi, "Banden Lehia irabazteak ekarritako beste sari bat" taldekoen arabera.

Durango Azokan be aurkeztuko dabe *Pantomima* diskoa.

## 2015eko Banden Lehia mar-txan

Azkue Fundazioko lurdana Acasusok Banden Lehiak hiru nobedade dakarjala aurtan esan eban. Alde batetik irudi barria dauka, .eus

domeinuan; beste aldetik, parte hartzea sustatzeko BBK Live-erako bono bat zozketatuko dabe parte hartzaileen artean eta hirugarren nobedade moduan, zementarian 27ko finalean, botoak Twitterren bidez emongo dirala.

Ana de Castrok, Larregik egiten dauan moduan, euskerea aisialdian eta sentimentuak adierazteko erabilteak garrantzia handia daukala esan eban.

## Larregi

Iñigo Santos (bajua eta koruak)  
Unai Santos (gitarra eta abotsa)  
Jokin Uriarte (gitarra eta koruak)  
Markel Atutxa (bateria)

## Diskoak

*Bidea dugu helmuga* (2012)  
*Pantomima* (Baga-Biga 2015)

## Pantomima

"Zuloak"  
"Ostruka"  
"57"  
"Gezurra ari du"  
"Eroalea"  
"Pantomima"  
"Maskarak"  
"Toxikoa"  
"Ez zaitez gelditu"

## URTEURRENA

## Karabie Gaztetxeak 16 urte beteko ditu oraingo hilean

## Erredakzioa

Aurtan hamasei urte beteko dira Harriketarrak Lemoako Gazte Asanbladeak karabi zaharrean lehenengo Gaztetxea egin

ebanetik. Hori ospatuteko, urtero lez, jaia antolatu dabe Harriketarrak urri bigarrenaren 30 eta 31rako. Barikuan, nagusientzako kontu kontalariak eta zapatuan kontzertuak izango dabe

protagonismo nagusia seguru asko, baina beste ekitaldi batzuk be ez dira faltauko: bazkaria eta poteoa, barbarako.

Cecilia Paganini argentinarraren umoreaz gozatzeko aukerea egongo da barikuan, hilak 30, 20:16an. Klowne eta narratzailea da Paganini eta bere ikuskizunak "idea txar, lur jotze eta azaleko emozioz beteta dagoz" artistearen esanetan.

## Bazkaria eta kontzertuak

Harriketarrak eta batzean jakiezan lagunak 14:16an bazkalduko dabe alkarregaz zapatuan eta 18:16an poteo musikatu egingo dabe herritik.

Kontzertuak 22:16an hasiko dira. Guda Dantza eta Batek Daki taldeak animauko dabe gaua. Uribe Kostako Guda Dantza taldeak ska, reggae eta rock musikea egiten dau. Ondoren, erromeria Zornotzako Batek Daki taldeagaz.



Arratia, Ubide eta Zeberioko euskerea eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean

**begitu**  
arratia ubide zeberio

12 urte eta gehiago

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.  
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€



Moztu eta bidali helbide honetara:  
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48142 Artea

## KULTUR ETXEA


# Estankonak *Ardatza* diskoa aurkeztuko dau Igorreko Kultur Etxean

### Erredakzioa

Estankonak *Ardatza* izeneko diskoa aurkeztuko dau, urri bigarrenaren 30ean Igorreko Kultur Etxean 21:00etan emongo dauan kontzertuan. Arteaztarraren bakarkako hirugarren diskoa da hau; *Estankona* (2011) eta *Fruitua* (2013) izan ziran aurreko

biak. Bere anaia Igor Estankonak be hartuko dau parte kontzertuan, berak idatzitako poemak errezitatzen.

Estankonaren musikeak "baso mardul baten izaerea bilatzen dau gaur egun". Hori dala eta, disko honetako kantua ilunagoak dira, "bihurgune eta ertz gehiagodunak". Rafa Batagliak



joko dau bateria eta Iñaki Alonsok bajua. Igor Arzuagak be parte hartuko dau eskusoinuagaz. Kontzertua bizia eta intensoa izatea gura dau Estankonak.

### Umeentzako antzerkia

Urri bigarrenaren 24an, arrastiko seiretan Txipli Txapla taldeak *Tomaxen abenturak* antzezlan eskeiniko dau Igorreko Kultur Etxean, txikerrenen gozamenerako. Abentura honetan Tomax eta Muxugorri hondartzara joango dira. Itsas hondoan, Doroteo olagarroa, Benantzio ezpata arraina eta Anttoni antxoa bizi dira eta oso haserre dagoz itsasoa plastikoz beteten gabizalako.

## MUSIKEA

# Disko gehienak saldu eta gero, interneten da MGren disko barria

### Erredakzioa

Reggae-ska musikea egiten dauan MG talde arratiarrak maiatzean atera eban *MG Banda* izeneko diskoa. Diskoa taldeak berak produzidu dau eta salgai ipinitako 200 CDtatik gehienak saldu dirala dino Iban Agirregoikoa taldekoak. Orain interneten dago eta debalde deskargatu daiteke [mgbanda.bandcamp.com](http://mgbanda.bandcamp.com)-en.

Bederatzi kantu dagoz disko honetan, eta nahiz eta musika jamaikarra izan, era guztietako kantak dagoz, "partaide bakotzak apur bat

ipinten dau kanta bakotxean".

MG Banda 2006. urtean sortu zan Igorren eta Arratia eta Arratiatik kanpoko musikariak osotuten dabe taldea. Holan, Igorrekoak dira Iban (tekladua), Endika (gitarra eta ukelelea) eta Iñigo (teknikaria); "Zoro" (bajua eta abotsa) arteaztarra da eta "Biser" (bateria) Dimakoa. Azkenengo fitxajeak, Asier (tronpetea) eta Gorka (saxo tenorra) Mungia aldekoak dira. Ensaioak Diman egiten dabez.

Diskoa produziduteko, kontzertuetako dirua eta "izerdi

asko eta denporea" behar izan dabela dinoe. Ondo saldu da eta kritika onak jaso dauz.

Taldeak 2010ean pare bat kanta grabatu eban *Arratiako bailarako musikea* diskoan, Larregi, Esti eta Olatz, Zaustu eta Jaik taldeakaz batera. 2011n bederatzi abestiz osotutako maketea atera eban.

### Txapel Reggae Jaialdia

Uda honetan MG Bandak Armintzako Txapel Reggae jaialdian jo dau. "Musika estilo honetan jamaikar, edo reggae, ska eta abar, sano festibal ezaguna da, batez be nahiko zaharra dalako, lehenengoetarikoa estatu mailan".

Taldeak Durangoko Gaztetxean jo eban urri bigarrenaren 10ean eta hurrengo zitak abenduan izango dira.

## AKKB

# Arratiako ondarea eta zineforuma Areatzan

### Erredakzioa

AKKBk antolatutako Arratia inguruko ondarearen gaineko hirugarren berbaldi eta ibilaldi teoriko-praktikoak XX. gizaldira helduko dira. Urri bigarrenaren 14an, Angel Larrea Arratia Institutuko irakasleak euki eban zitea XVII. mendetik XX. mendera arteko ondarearen gainean berbaldia egiteko. Ibilaldi praktikoa, hilaren 18an izango da, 09:00etan eleiza parean. Hau be, Larrearen eskutik.

Zineforuma be antolatu dau AKKBk urri bigarrenaren 28rako, eguaztena. John Ford-en *El ultimo Hurra* (1958) pelikulea ikusteko aukerea egongo da Udal Aretoan, arrastiko zazpiretan. Jose Angel Rebolledo irakaslea izango da hizlaria.

Zemendiaren 19an Bos & China Moses jazz gaua izango da Bilboko Euskalduna Jauregian. Bertara joateko izena emon daiteke urri bigarrenaren 22an, 19:30ean, udaletxeko 3. solairuko AKKBren gelan.

## DUNBA

# Zulaibarrek lan mundurako bideak errezten deutzuz

### Zulaibar Lanbide Ikastegia

Zulaibar Lanbide Heziketako Ikastegia Zeanuriko herriagaz eta Santa Maria eta Santiagoko parrokiakaz lotuta egozan persona batzuen laguntzeagaz sortu zan 1955. urtean. 60 urte pasau dira ordutik eta gaur egun bizirik eta indartsu jarraituten dau Zulaibarrek.

Formazio arautuan: Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Maila eta Goi Mailako zikloak daukaguz gaur egun; formakuntza ez arautuan aldiz langile eta langabetuentzat ikastaroak eta Goi Mailako Sarbide Proba prestatzen dogu. Hobetuz eta Lanbideren laguntzeagaz makina bat ikastaro antolatu doguz, Batz S.Coop enpreseagaz kontratatiko konpromisoagaz egin dogu azkena.

Aurten Oinarrizko Lanbide

Heziketa Zikloak martxan jarri doguz 15-17 urte eta graduatorik ez daukien ikasleentzat. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan arazoak dituen ikasleak gurera datoz eta Lanbide Heziketak eskeintzen deutseezan klase praktikoai esker eta Zulaibarreko irakaslearen hurbiltasunari esker ikasketetan aurrera egiten dabe, gogotsu gainera.

Zulaibarren irakasteko metodologiak jagokien azpimarratu gura dogu Informazio eta Komunikazio Teknologikoen (ordenagailu, proiektoreak, internet eta telefono mugikorrek) erabilera areagotu egiten dogula egunetik egunera eta horrek barrikuntzak eskatzen deuskuzala hezkuntzaren esparruan, ikasgelako ohiko praktika didaktikoen baliogarritasuna zalantzan jarri eta praktika horreek



Lehenengo mailako ikasleak.

beste norabide bari batzuetarantz erotan behar izateraino.

Lanbide Heziketak lan mundura ahalbidetzen dauan proiektzioa goraka doa azken urteotan. Enpresak hartu-emon zuzena daukagu, enpresarik enpresa gabiz egunero eta momentuko teknologia gelatara ekarten dogu.

Formazio Dual-a proiektuak martxan daukaguz aurten be. 5 ikasle ikasten eta enpresan lanean dabiz programa berezi bategaz. Oso aukera ona da hau gure ikasleentzat lan mundurako bidea errezten dau

eta.

Ikasleen eta enpresen arteko hartu-emonai esker, gure ikasleak lan mundua hurrago daukie; horrek praktiketako exijentzia maila be jasoten dau. Praktiketaren egindako lanari esker ikasle askok lana lortzen dabe.

Sektore industrialean mobimentua dago eta Lanbide Heziketako ikasleentzat badago lana, astero jasoten dogu lan eskeintzaren bat, gure ikasle gehienak lanean dabiz eta sarri arazoak izaten doguz langile kualifikatuak topatzeko.



Hurrengo urteetara begira gure ikasleak lan munduan aukera gehiago izan dagien proiektu garrantzitsu bat daukagu eskuetan, trokelgintzan dagoan lan eskaera ugaria ikusita; Trokelgintzaren Prosezua eta Diseinua gure gelatara ekarteko aukerea daukagu. Zulaibarreko irakasleok enpresetan formakuntza jasoten gabiz, ondoren gure programazioetan sartu eta ikasleak erakusteko.

Ikusten dozue Zulaibarrek 60 urte eta gero personak lanerako prestatzen jarraituten dauela. Eskerrik asko bertatik pasau zarien guztioi eta aurten Zulaibarrera ikasten etorri zarieno, ondo etorri.

## AGENDEA

### URRI BIGARRENAK 15 DIMA

17:00etatik 19:00etara, Lanbideren puntu mobikorra.

#### IGORRE

18:00etan, Gabonetako Programazino Batzordearen batzarra Kultur Etxean.

Hilaren 30era arte, Lan-Meta erakusketea.

#### LEMOA

19:00etan, III. Hirigintza Jardunaldiak. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

Lemoako IV. Argazki Lehiaketara argazkiak bialtzeke epea hilaren 30era arte, kultura@lemoa.net helbidera.

### URRI BIGARRENAK 16 LEMOA

18:00etan, Parekidetasun Gunerako deialdia. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

#### ZEBERIO

18:00etan, Ane Monna Oskolak *Maddi pirata* antzezlan Plazako frontoian.

### URRI BIGARRENAK 17 AREATZA

Aragoeta eta Abendañotarren burdinolara bisitaldi gidatuak. Udalak antolatuta. Udaletxeko atarian. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

#### BEDIA

10:00etan, urtekera Sopuertako Multiabenturara 4 urtetik gorakoentzat.

#### DIMA

10:00etan, Arratia Raid. Plazan.

#### IGORRE

08:20etan, Otxandio inguruan oinez zirkuitu bat egiteko, autobusa Dimarantzako bidean. Jubiladuak antolatuta.

22:00etan, zinea *Vacaciones*. Kultur Etxean.

#### ZEANURI

10:00etan, ferraketa tailerrera bisita gidatua. Plazatik.

### URRI BIGARRENAK 18 AREATZA

09:00etan, AKKBk antolatuta, Arratia inguruko ondarea III (praktikoa). Ibilbidea autobusez. Hizlaria Angel Larrea. Eleiz aurrean.

Aragoeta eta Abendañotarren burdinolara

bisitaldi gidatuak. Udaletxeko atarian.

Parkebeak antolatuta, Mikologia Jardunaldia.

Parke Naturaleko onddo erakusketea plazan.

#### ARTEA

09:00etan, AKKTK antolatuta, Gaztain Eguna. Gaztain bilketea plazatik urtenda.

#### IGORRE

08:30etan XXVIII. Mugari Bira. Kiroldegitik urtenda.

17:00etan, ikusle guztienezko zinea *Inside out*.

19:30etan, zinea *Vacaciones*. Kultur Etxean.

#### LEMOA

11:00etan, Igitie Baseritar Azokea Elizondan.

#### ZEBERIO

Austarri Mendi Taldeak antolatuta, mendi urtekera. Baiza (Urbasa).

20:00etan zinea *Candida*. Plazako ermitan.

### URRI BIGARRENAK 19 AREATZA

09:00etatik 17:00etara, Bardintasanaren Gunearen autobusa eskolan.

### URRI BIGARRENAK 20 IGORRE

09:00etatik 17:00etara, Bardintasanaren Gunearen



## Musika zeltikoa Corner-ean

Highlanders Trio taldeak, musika zeltikoa joko dau Areartzako The Quiet Corner tabernan urri bigarrenaren 31n, arrastiko 20:00etan. Taldeak maiztzean atera eban bere lehenengo diskoa, *Cruce de caminos* izenekoa. Borja Feal-ek (zeharkako txirula, piccolo, whistles...), Edu Anderrez-ek (gitarra) eta Isidro Teran-ek (akordeoia) osotuten dabe hirukotea.

Santanderreko Ibioson estudioetan dago grabatuta diskoa eta pieza guztiak instrumentalak dira. Highlanders taldekoak, musika zeltiko tradizionala beste sonoridade etnikoakaz nahastuten dabe.

autobusa Arratia Institutuan.

### URRI BIGARRENAK 21 IGORRE

17:30etan, Marisa Bouzas medikuaren berbaldia "Zelan bizi gehiago eta hobeto". Jubiladuen.

18:30etan, *Dena ez da futbola*. Euskal Herria eta Venezuelako umeak egindako filma. Kultur Etxean.

#### LEMOA

09:00etatik 17:00etara, Bardintasan Gunearen autobusa eskolan.

### URRI BIGARRENAK 22 AREATZA

19:30etan, zemendiaren 19an Euskalduna Jauregian Bos & China Mosesek (jazz gaua) emongo dabentzako zertuturako izen emotea. AKKBren gelan.

### URRI BIGARRENAK 23 DIMA

20:00etan, Dimako Kalenturak Ipuin Erotikoen II. Lehiaketaren sari banaketeta. Liburutegian. Dimako Udalak eta liburutegiak antolatutako Ipuin Erotikoen Lehiaketara 12 lan aurkeztu dira eta horreetatik 5 arratiarrek idatzi dabez. Epaia mahaikideak, Irati Goikoetxea, Borja Estankona, Maite Artabe eta Rafa Ugalde izan dira. Musikea, irabazleen testuen irakurketea eta bestelako sorpresak izango dira.

#### IGORRE

16:00etan eta 18:00etan, 12-26 urte bitartekoentzat, Beldur Bank Lehiaketarako gidoi tailerrak. Kultur Etxean.

#### LEMOA

22:00etan, Eneko Larrazaren monologia eta Larregi taldearen kontzertua, *Pantomima* diskoaren aurkezpena. Karabie Gaztebea.

### URRI BIGARRENAK 24 AREATZA

Euskal Jaia. Egitaraua 5. orrialdean ikusi.

#### BEDIA

10:00etan, txorien etxetxuen ganbelak ipinteko urtekera Bedia. Plazan.

#### IGORRE

18:00etan, Txipli-Txapla taldeak *Tomaxen abenturak* umeentzako ikuskizuna. Kultur Etxean.

#### LEMOA

Udalak antolatuta, Jubiladuen Eguna. 12:30etan, mezea. 13:00etan, Durundi Bari Dantza Taldea. 14:15ean bazkaria.

Ganzabalek antolatuta, umeen urtekera. Markina/Bedartandi (700 m.)-Urregarai (704 m.).

### URRI BIGARRENAK 25 ARANTZAZU

08:30etan, Arratia-Otxandio-Ubideko Mendizale Eguna. Plazatik.

#### IGORRE

17:00etan, ikusle guztienezko zinea *Campanilla, leyenda bestia* eta 19:30etan, zinea *Anadeto, agente secreto*. Kultur Etxean.

#### ZEBERIO

09:00etan, kultur ibilbidea Astoaga eta Meako erreketatik. Areitziatik urtenda.

### URRI BIGARRENAK 26 BEDIA

19:00etan, Isabel Pozueta sexologoaren berbaldia. "Umeakaz eta gazteakaz sexologia gaia zelan erabili". Liburutegian.

#### IGORRE

09:30etan, Jubiladuak antolatuta, Gemikara urtekera, Jubiladuen txokoaren aurrean. Bazkaria Kamiñoko jatetxean eta bazkalostean Jokaldi.

### URRI BIGARRENAK 28 AREATZA

19:00etan, AKKBk antolatuta zineforuma, *El último hurra* (John Ford, 1958). Hizlaria: Jose Angel Rebolledo (gaztelaniaz).

#### ZEANURI

10:00etan, Barazarko zentral hidroelektrikora bisita gidatua. Plazatik.

### URRI BIGARRENAK 29 IGORRE

20:00etan, Mintzanet, euskera praktiketako

proposamenaren aurkezpena Lasarte Aretoan.

#### ZEANURI

18:30etan sorgin jantzea ikasteko aukerea. Plazan.

### URRI BIGARRENAK 30 BEDIA

18:00etan, Zumunka Antzerki Taldearen *Iraungomiko Marimiri* umeentzako ikuskizuna. Itzal titere antzezlan. Ludotekan.

#### IGORRE

16:00etan eta 18:00etan, 12-26 urte bitartekoentzat, Beldur Bank Lehiaketarako gidoi tailerrak. Kultur Etxean.

21:00etan, Estankonaren *Ardatza* diskoaren aurkezpena. Kultur Etxean.

#### IGORRE/LEMOA/ZEBERIO

19:30etan, atzen bankua, preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

#### LEMOA

20:16an, helduentzako kontu kontalaria. Cecilia Paganini. Gaztebea.

#### ZEANURI

18:30etan sorgin jantzea ikasteko aukerea. Plazan. 19:00etan berbaldia "Samhain, sorginen gaua". Hizlaria: Graci Chacon. Udaletxe azpian.

### URRI BIGARRENAK 31 IGORRE

22:00etan, zinea. Kultur Etxean.

#### LEMOA

Karabie Gaztebea urteurren jaia. 14:16an bazkaria. 18:16an poteo musikatua. 22:16an, kontzertua Guda Dantzagaz eta Batek Daki taldeagaz erromeria.

#### UBIDE/ZEANURI

10:00etan, Larreen Mankomunitatearen IX. Zeharkaldia Ubideko plazatik urtenda. 13:00etan, Ubide eta Zeanuriko Udalbatzen batzarra Bazkalarreen Mankomunitateko kontuak egiteko eta bilera agiria sinatzeko Zeanuriko udaletxean.

#### ZEANURI

Sorginen gaua. 18:00etan konjurorako gauzak topau. 19:00etan sorginkeriak plazan. Iluntzean kobazuloan sartu-urtena eta berakatz-zoepa eta urdaia danontzat. 20:00etan musikea plazan.

### ZEMENDIAK 1 IGORRE

17:00etan eta 19:30etan, zinea. Kultur Etxean.

#### ZEBERIO

11:00etan, perretxiko erakusketea eskola zaharrean. 20:00etan zinea *Gloria*. Plazako ermitan.

## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### SALGAI

Bogaboo-a eta sehaska zuria saltzean dodaz. Deitu 679 909 869 telefonora.

#### SALGAI

Relax modua daukien narruzko sofa eta besaulkia saltzean doguz. Deitu 653 727 047 telefonora.

### DANERIK

#### BEHAR BILA

Persona nagusiak eta haurren zaintza edo etxeko beharrak egiteko laguntza behar dozu? Deitu konpromiso barik. Grisel 678 104 166.

#### APARKALEKU ITXIA

Karabanak, autokarabanak... gordetzeko aparkaleku itxia, pabilioi baten barruan. Plaza zabalak, zenbatuak, bakotxa aseguru eta alarmeagaz. Ur lohiak garbitzeko komuna. Arratian. 671 549 015 (Jon).

#### ZERAMIKA IKASTAROA

Zeramika ikastaroaren hasikerea urri bigarrenaren! Astean ordu biko klaseak,

arrastietan. Interesautaz bazagoz, animatu eta deitu 615 731 182 telefonora (Saioa).

#### TXELOA

2/4 edo 3/4 tamainua daukan txeloa behar dot. Aukeran gurago neuke alokairuan hartu. 689 327 003.

#### BEHAR BILA

Etxeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Kotxeduna. Dimoztarra. Telefonoa 634 438 725.

#### BEHAR BILA

Delineazino lanak egiten dodaz. CAFen esperientziaduna. Ingeniaria. Dima. Telefonoa 635 207 386.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Vacaciones* filmarako.

Estibaliz Aldape (Igorre)  
Joxe Ramon Arbe (Gasteiz)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Anacleto: Agente secreto* filmarako.

Esti Izagirre (Igorre)  
Lurdes Ortega (Bedia)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13


urte eta

ehundaka

lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Hika. 2.- Letra bat. Desira. 3.- Aitaren anaia. Bat erromatar. 4.- Birritan, edurra apurka-apurka jaustea. Aluminioa. 5.- Aztertu. 6.- Birritan, bular. Agur. 7.- Bokala. Ireska. 8.- Emea ez dana. Oxigenoa. 9.- Geldiro.

### GOITIK BEHERA

1.- Ensaladan jaten da. Bokala. 2.- Letra mutua. Soldata. Arsenikoa. 3.- Maindirea. Berba alkarketan, ardi. 4.- Errebedar. 5.- Edo. Aldapa. 6.- Neoia. Etxera sartzeako. Oxigenoa. 7.- Bokala. Itxaropen.



Topau bi hankagaz dabilzan animaliak.



# AKMIKO

Aitzi ber



umean moda  
**seim**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnos. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 Telefonos: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

**AKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
IGORRE

**ASEGURUAK**  
basolo Emaldi  
Abokatuak  
620. 57.86.04  
aslerabasolo@hotmail.com  
Bilbao-Zeanuri

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

**Egin zaitez Begitu lagun!**

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...  
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGA, KONTABILITATEA  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96 Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

**KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 bago - 48140 IGORRE (Bizkaia) 94 631 92 06

**Pinturas Aratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta eskuratzeko zain ordoraz  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonos 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: unozaku@euskatel.net

## IURDANA ACASUSO ATUTXA

**"Banden Lehia tranpolin bat izatea gurako neuke"**

Iurdana Acasuso Banden Lehia antolatuten dauan Azkue Fundaziooko zuzendaria da.

Bilbon jaiotakoa izan arren, ama dimoztarraren alabea da eta lotura handia dauka Dimagaz. Izan be, zinegotzia da Diman.

Batz-en egin eban behar hamar urtez eta Igorren bizi da.

Soziologian lizentziatu ondoren, Iurdana Acasusok Humanitateak eta Enpresa ikasi eban Mondragon

Unibertsitatean eta urte bi pasatxo daroaz Bilboko San Inazio auzunean dagoan Euskararen Etxean beharrean, berau kudeatzen eta Azkue Fundazioa zuzentzen.

**Erredakzioa****Azkue Fundazioa zer da eta zein da zure beharra bertan?**

Azkue Fundazioa orain dala bost urte sortu eben, garai haretan Bizkaian egoitza edo aktibitatea eukien bost erakunde: Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak, Euskaltzaindiak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak. Bost erakunde honeek ebatzi eben euskera Informazio eta Komunikazio Teknologien esparruan sendotutako fundazio bat sortzea. TIK, internet, sarea, edo uniberso informe eta aldakor horretan, hain zuzen be.

Orduan Aldundiak opatu eban lantoki moduan Euskararen Etxea. Eraikina Aldundiarena da. Euskararen Etxea martxan dago 2004tik. Euskerearen interpretazio zentro edo museo txiki bat dago han. Azkue Fundazioari esan eutsien bertan bulegoak ipinteko eta bide batez, eraikina kudeatzeko. Beraz, gure aktibitate nagusia da euskera teknologia barrietan sustatzea, baina eraikin hau be kudeatzen dogu. Horrek suposatzen dau museo edo interpretazio zentroa kudeatzea eta programak egitea, erakusketea eguneratzea eta mantentzea, bisitak sustatzea... Urtero 5.000 ikasle etorten dira ikaste-teeetatik.

Bizkaiko Ikastolen Elkarteak, Topaguneak, Mendebalde Kultur Elkarteak eta euskereagaz loturea daukien beste alkarte batzuek

be bulegoak daukiez Euskararen Etxean. Orain dala urte 7 edo, eraikinean obrak egin genduzan eta kaleari espazio bat irabazi, erabilera anitzeko espazio bat sortzeako. Hor, erakusketak, ikastaroak, hitzaldiak, ikuskizun txikiak, prentsaurrekoak eta abar egiten dira. Auzoari bizitasuna emoten deusteko espazio horrek. Gure asmoa euskera San Inaziora be zabaltzea da. Askotan, Bilbon joerea dago dana erdialdean egiteko eta gure eginkizunen barruan hori be hartu egin dogu.

**Banden Lehia da Azkue Fundazioak antolatuten dauan ekintzetako bat, ezagunena, akaso.**

Eta Arratiak aspaldi honetan presentzia nabarmena dauka. Banden Lehia sano proiektu polita da eta gainera teknologia barriak oso era naturalean txertatzeko aukerea emoten dau. Banden Lehiaren hasikerako idea eta proiektua Aldundiarena zan. Orain dala 7 urte, Euskararen Eguna ospatzeko Bilboko Plaza Barrian antolatu ziran kontzertu batzuk eta idea horretatik abiatuta sortu zan Banden Lehia. Gaur egun euskeraz musika egiten daben banda amateur edo ez profesionalen lehiaketea da.

Lehiaketa honen zati handi bat, teknologia barrien bidez garatuten da. Euskera dago, musika dago eta teknologia barriak be badagoz. Aukerea emoten deusku lehiaketa parte hartzaile antolatuteko, eta lehiaketeak sarea erabiltera behar-

tzen dau; holan euskera sarean sustatzen da, gure helburu nagusia. Twiterrera jotzen dogunean, edo Facebookera edo email bat idazten dogunean, edo bloga edo webgunea planteetan dogunean, naturaltasunez euskeraz egin daigula da gure helburua.

Aurtengo nobedade nabarmena da Twitterrek izango dauala presentzia espeziala lehiaketan. Gero, parte hartzaileen artean BBK Live-rako bono bat zozketatuko dogu.

Egia esan oso proiektu polita bilakatu da Banden Lehia. Sariak sano interesgarriak eta erakargarriak dira bandentzako: BBK Live-n eta Bartzelonako EH Sona jaialdian jotea eta disko bat grabetea, hain zuzen be.

**Ze bilakaera izan dau Banden Lehiak? zein da egiten dozun balorazioa?**

Sarien kalidadearen bilakaerak, banden kalidadearen bilakaerea eragin dau. Aurkezten diran banden kantitatea jeitsi egin da eta kalidadea hobetu.

Hasikeran saria musika materialan gastetako dirua zan. Orduan errezagoa zan banda batek izena emotea nahiz eta oso trebatua ez izan, edo ondino ibilbide laburra eukinda. Gaur egun, sariak desiragarriak baina exigenteak diranez, izena emoten daben bandak ibilbide bat daukie, talde egonkorak dira... Epaimahaiko profesionalak be esaten dabe orain beste kalidade bat ikusten dala. Holan, irabazleak aukera gehiago ditu musikerearen merkaduan bizirauteko. Adibidez, Eskean Kristök, 2013ko Banden Lehiaketako irabazleak, diskoa atera eban eta uda honetan jiran ibili da hainbat kontzertu emoten, eta badirudi izena eta be-lizidade bat hartu dauzala.

Nik gurako neuke Banden Lehia tranpolin bat izatea eta hain zaila dan mundu horretan lagungarri izatea.

**Teknologia barrietan badago genero bretxarik?**

Egia esan ez. Urtero urtetan dira estatu mailako datuak, teknologia barrien egoera eta abar. Euskal Herrian ez dago genero arrakalik teknologia barrien erabilpenari jago-konean. Edadean dago bretxa digitala.

Belaunaldi gazteentzat, guk nati-bo digitalak esaten deutsegu, ingurune-ko zerbait da. Gazteentzat oso ohikoa da Smartphone bat izatea, tablet bat izatea...

Baina musika garaikidea edo rock taldeetan, gehienak gizon-ekoak dira. Noizbehinka abeslaria neska izaten da, baina gitxitan. Instrumentistak ondino gitxiagotan.



Banden Lehiara apuntatzen diran bandak rock-a edo metala edo hard rock-a jotzen dabe batez be. Aurten pop banda batzuk be apuntatu dira, baina badirudi euskaldunak musika gogorra nahiago dogula.

**Arratiarren parte hartzea handia da Banden Lehian, Azkue Fundazioak antolatuten dituan beste gazetan be bai?**

Ahoz ahozko oso inportantea da. Arratiako talde bat apuntetan bada, horrek oihartzun bat sortzen dau bere inguruan eta hurrengo urtean beste bat apuntetea dakar askotan. Holan, Banden Lehian, ez dakigu zergaitik ohikoa be bada Bermeoko jentea apuntatzea.

Aurten esfortzu berezia egin dogu Bizkaitik kanpo be publizidadea egiteko. Guk badakigu Bizkaian errotutako erakunde batzuk sortu ebena baina Azkue Fundazioaren lana sarean da eta sareak mugarik ez dauka. Munduko edozein euskaldun animetan dogu gure ekintzetan parte hartzera.

**Zeintzuk dira ekintza horreek, esate baterako?**

Badaukagu beste lehiaketa bat martxan, sormenaren ingurukoa, % 100 sarean egiten dana eta hor euki doguz diasporako euskaldunak. Irudimena Sariak deitzean da eta sano lehiaketa polita da. Aurten bosgarren edizioa da. Lehiaketa hau Iparraldeko EKE, Euskal Kultur Erakundeagaz batera egiten dogu. Soinu mapan dagoan soinu batzuk proposatzen doguz. Soinu bat aukeratu behar da eta soinu horretatik irudimena erabiliz irudi bat, testu bat edo beste soinu barri bat egin behar da. Dana egiten da

internet bitartez eta parte hartzaile asko Hego Euskal Herrikoak dira, beste batzuk Ipar Euskal Herrikoak eta aurreko urtean, Argentinako diasporatik be lan batzuk aurkeztu ziran. Teknologia aukerea emoten deusku, Euskal Herrikan kanpo dagoan euskaldunak parte hartu dagien.

Beste lehiaketa bat be badaukagu martxan, Instagram plataformatik. Esaera zaharrak irudiz adierazo behar dira.

Azkue Fundazioan gura doguna da edozein euskaldunek bere buruari galdetzen deusanean "ba ete da... ordenagailuan edo tabletean edo telefonoan erabilteko hiztegi edo itzultzaile edo jolas bat, aplikazio bat edo dana dalakoa?" Azkue Fundazioaren webgunera jotea, hor dagoz-eta euskeraz dagoan baliabideak.

**Urtero 5.000 ikasle inguru partean dirala Euskararen Etxetik dinozu.**

Ikastetxeai interpretazio zentroa edo museoa ikustea eskeintzen deutsegu baina bide batez ume eta gaztetxoentzat teknologia barrien inguruko tailerrak. Landuten doguzan gaiak: teknologia barrietan euskera erabiltea, pribadutasuna sare sozialetan zelan zaindu, Smartphone-ak era egokian zelan erabili, sexting-a, hau da, argazki pikanteak partekatze-ko daukien arriskua, eta abar dira. Ikastetxeak benetan eskertzen dabe holango gaiak tratetea eta ume eta gaztetxoentzat arinagoa izan daiten, komiki erudian planteetan doguz. Komiki bat pentsatu eta sortu behar dabe. Eta ikastetxeen arteko lehiaketa moduan planteetan dogu, parte hartzea sustatzeko.